

Arrasate

P R E S S

Rojo

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 16a / 657. zenbakia



ERRETIRATUENDAKO ORTUAK
Udalak Garagartza auzoan ipiniko ditu

ORAIN ETA HEMEN: UDAL AURREKONTUAK/6 • KIROLA: MARKEL ELORTZA EUSKADIKO SELEKZIOAN/12

ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN

GREMIOEN GIDA/24



ILUNTZEAN

Aitor Lopez Rekarte solaskide

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz


Eguenean, urtarrilaren 22an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

KALEINKESTA/ Prostitutek lan-baldintza normalak euki biherko leukie?



GARIKOITZ VILLANUEVA
Ikasle



A. URIBARREN-ITURRIETA
Ikasle



JOSE JURADO
Langillie



ARANTZA GANBOA
Langillie



IXONE ARRIETA
Ikasle



PILAR DIAZ
Langillie

Baietz uste dot. Azken baten, lan egitten daue, eta bestioak daukogun lan baldintza berak euki biherko leukie. Egixe esatiarren, ointxe dauzen egoeran txarto dauz, eta hori hobetu egin biher da.

Bai. Hori lortzen bada, prostitutek lana ondo egitteko erretasun haundixauek eukiko dittue; seguridade sozialakin, eta abar... Lanbide zaharrena da eta eskaera haundixe dau.

Baietz pentsetan dot, bidezku da. Beste edozein lanen modukue da eta legala izen biherko leukie: seguridade sozialakin eta beste edozein langillek daukon esku-bide berekin.

Baietz pentsetan dot. Lanbide moduen onartu biherko litzake, baiñe horrek aspaldi egon biherko leukie egindde. Euren eskubidiek daukie osasune eta beste-lakuek zainddute eukitteko.

Baietz esango neuke. Langille danok daukogun esku-bide berak euki biherko leukie hareik be, duda barik. Hori be lanbide bat da, eta lanbide horren bihera dau, gaiñera.

Bai, duda barik! Iguel ez daukie bizimodue aurrera atarateko beste modurik eta lan hori egin biher daue. Ez dutzie iñori txarrik egitten, euren gorputzekin egitten daue lan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GABONETAKO JAIOTZA Azken urteotako ohiturari jarraituz, Arrasateko Belenzaleen Elkarteak Gabonetako jaiotza ipini zuen Jokin Zaitegi plazan. Horren harira, Euskal Herrian Euskarazko lagunek kexa bat helarazi digute: jaiotza horretan goizero eta arratsaldero Gabonetako musika zegoen ipinita, baina guztia gaztelaniaz. Hala, Euskal Herrian Euskarazek euskal muskarik ez ipintzea salatu du.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

KULTURA / 15

ZAHARRAK / 17

Sahararren aldeko kanpaina

Dagoeneko bost tona elikagai batu dituzte. Dena dela, otsailean dirua batzen jarraituko dute.

Zahar Berri, euskaltegiekin

Zahar Berri elkarteak hainbat ekintza antolatatu ditu herriko bi euskaltegiak ikasleentzat.

Iturbide handitu guran

Udala aztertzen dabil Iturbide egoitza handitzea. Ondorioz, baliteke Abaroa elkartea lekuz aldatzea.

ASTEKO DATUA

731

LAGUN EGON DIRA AMAIA ANTZOKIAN FILMAK IKUSTEN

Joan den asteburuan, 731 lagun egon ziren Amaia Udal Antzokian filmak ikusten. Zinekluba 57 lagunek ikusi zuten; *Mystic River* filma, 517 lagunek; eta umeendako filma, berriz, 157 gaztetxok.

BESTEKE SANA

Burdina asko jaten genuen, baina kultura goseak geunden, bertso goseak. Garai batean Joxe Mari

Errota, San Migel anaiak, Txarrualde, Iñaki Plazaola eta besteren bat ere ibiltzen zen bertsoan; baina orokorrean bailaran hutsunea zegoen (...) Almenekoei propaganda egiteko esan genien eta 6 eta 10 urte bitarteko 125 haurrek eman zuten izena. Bertsozaleak osatu nahi genituen. Lehen urteetan doinu asko irakatsi genizkien, bertsoak zein kantuek, eta hirugarren urterako 60ren bat ikasita zituzten (...)

Txirriindulari onei bizikleta eman behar zaie zerbait egin dezaten. Bertsolarietan gauza bera. Txirritak zioen bertsolariak Jainkoak emandako dohaina izan behar zuela baina nik uste dut landuz gero hobetzen dela"

PATXI GOIKOLEA
'BERRIA'/03-12-31

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Urte berriari

Dagoeneko urte berriari hasi da. Euritsu eta hotz hasi da. Urtero bezala guretzako neguan hasi da. Guretzat diot, mundu erdiarentzako (hegoalde osoarentzako, alegia) udan hasten baita urtea.

Urte berezia da hau, urte bisustua, egun bat gehiago duen urtea, alegia. Aurreko urtea ikusirik, urte gogorra datorkigula eman dezake, bai mundu mailan eta baita Euskal Herri mailan ere. Atzean utzi dugun urtearenak dira: gerrateak, euskararen kontrako erasoak, egoera politiko zaila...

Urtea bukatzeak ez du esan nahi arazoak bukatu direnik, batzuek jarraitu egingo dute edo areagotu egingo dira, zoritxarrez. Espero dezagun urte honetan hartu behar diren erabakietan ongi aritzea: estatubatuarrek beren lehendakaria aukeratu dute (mundu mailan duen garrantzia ikusirik, kontutan hartzeko erabakia), Espainian ere hauteskun-

deak egongo dira... Izan daitezela erabaki hauek aipatutako arazoei konponbidea emateko, eta sortu ahal izango diren arazoei ahalik eta azkarren irtenbidea emateko.

Urte hasiera beti da une egokia aurrera begiratzeko, asmoak eta intentzioak edukitzeko. Batzuk bete egingo dira eta beste batzuk ez, baina amets egitea ere ona da. Amets hauek bizian aurrera joateko bidean jartzen bagaituzte behintzat.

Urte neguan hasten dugula esan dugu, baina neguan udaberria dakar, eta udaberriak uda. Ezin daiteke udarik egon, aurretik negurik izan ez bada. Beraz aurreko negu urteak (iluna gauza askotarako), urte udaberri bat (itxaropentsua behintzat) ekar dezala. Barruan ditugun asmoak loratu daitezten eta fruitu eman aurtengo 2004 urtean. Horrela izan bedi pertsonalki eta baita gizarte, herrialde eta mundu mailan ere bai. Urte berri on.

"Urtea bukatzeak ez du esan nahi arazoak bukatu direnik, batzuek jarraitu egingo dute edo areagotu egingo dira, zoritxarrez"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 11

Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZALEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 16**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 17**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 18**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 19**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 20**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 21**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUENA, 22**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 23**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igualarioroa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko konsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINNTZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Domeka**
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 (gaztelaniaz)
12:30 (elebiduna)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Santa Marina eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Domeka**
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Domeka**
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- Gorostizatik Eroskira**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

OHARRAK

TXISTULARIEN KONTZERTUA
Domekan, urtarrilaren 18an, Arrasateko Musika Eskolako Txistulari Bandak eta Txistulari talde ertainak kontzertua egingo du osoko bilkura aretoan. 12:30ean izango da.

EGUBAKOITZETAKO ZINEKLUBA
Gaur, egubakoitza, *Madame Sata* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 20:30ean.

ASTEBURUKO FILMAK
Bihar, zapatua, eta astelehenean, *Crueldad Intolerable* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan; eta astelehenean, 20:30ean.

TXALO ANTZERKI TALDEA
Domekan, urtarrilaren 18an, Txalo antzerki taldeak *Cabaret latino* ikuskizuna eskainiko du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

EKIN EMAKUMEEN EKINTZAK
Ekin emakume elkarteak eskulan ikastaroa antolatuko du. Urtarrilaren 23tik apirilaren 2a bitartean emango dute, egubakoitzero, 15:00etatik 17:00etara. Rosa del Aguila izango da irakaslea. Bestalde, eguaztenean, *Elikadura zelan zaindu* berbaldia egingo dute Musakolako alkatetzaren lokalean, 15:00etan.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
AED elkarteak antolatzen dituen Arrasate Lehiaketek 17. aldia dute. Eta lanak aurkezteko azkeneko eguna da otsailaren 6a (egubakoitza). Hainbat sail daude: ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia eta euskalki-grabazioa, hain zuzen ere. Interesatuok bidali zuen lanak honako helbidera: AED. Pablo Uranga 4.

URBANOENORDUTEGIA

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Gesalibarren ATB ikusteko gestioak egin zituzten

Gesalibarko auzo alkatetzak egingo eskaera onartu zuen Udalak, telebista errepikagailua ipintzeko aurrekontua egiteko. Gesalibarren ez zuten Arrasate Telebista ikusten, ezta Espainiako hiru kanal pribatuak ere. Auzoetara kablea luzatzea azterzen ibili ziren.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Zastiau”



Akulua, sarda edo beste objektu zorrotz bat behin eta berriz sartu.
—*Erliak majo zastiau najok besuan.*

GORKA ORTEGA


HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 7	0 °C
MAXIMOA Martitzena, 13	17 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	4,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 7	13 °C	0 °C	- l/m²
Eguena, 8	16 °C	3 °C	0,6 l/m²
Egubakoitza, 9	15 °C	9 °C	1,8 l/m²
Zapatua, 10	16 °C	10 °C	- l/m²
Domeka, 11	16 °C	9 °C	0,3 l/m²
Astelehena, 12	16 °C	10 °C	- l/m²
Martitzena, 13	17 °C	11 °C	2,1 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak


ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Mikel Urdangarinen txanda martitzenean

GOITBko *Iluntzean* saioan Mikel Urdangarinen egindako elkarrizketa eskainiko dizue datorren astean Arrasate Irratiak. Martitzenean izango da, 19:10ean.

Baina elkarrizketak eta beselako gauza mordo entzuteaz gain, sariak eskuratzeko aukera ere baduzue herriko irradian. Eguaztenean literaturaren inguruko tartea izango dugu, eta *Zoririk ez* izeneko liburua zozketan emango dugu. Liburu hori eskuratzeko, dei egin Arrasate Irratira asteazken goizean.



Aralarko Joxe Etxeberriarekin

Aste honetan elkarrizketa egin diogu Joxe Etxeberriari, Aralar alderdiko zinegotziari. Zapatu eta domeka goizean ere izango da elkarrizketa hori entzuteko aukera, baita Ikerne Altuberi, Oñatiko garapen agentziako ardura-dunari, Arrikruzen gainean egindakoa ere. Eta, hamabostero legez, *Kontu kontari* ibili direnez Eusebio Iñarra eta Espe Lizarralde, aspaldiko kontuen gaineko tartea errepikatuko dugu. Arropen garbiketarekin lotutako kontuak gogoratu dituzte.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 *Planning Prest*
- ZAPATUA**
10:00 *Asteko albistekak.*
10:15 *Asteko elkarrizketak:* Ikerne Altube, Oñatiko Arrikruzen koben gainean; Joxe Etxeberria, Aralar zinegotzia; Leire Okarantza abokatua, errepideen egoeraren ondoriozko kalteen gainean...
- DOMEKA**
10:00 *Asteko albistekak.*
10:15 *Asteko elkarrizketak*
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 *Albistekak*
10:00 *Euskadi Irratiko albistekak*
10:06 *Igo Autobusera* (merideak, elkarrizketak, kirolak...)
11:00 *Euskadi Irratiko albistekak*
11:06 *Igo autobusera*
11:30 *Arrasate Irratiko albistekak*
11:40 *Igo autobusera*
12:00 *Euskadi Irratiko albistekak*
12:06 *Izarren ordua:* abesti ezagunak
13:00 *Euskadi Irratiko albistekak.*
14:00 *Goizeko saioaren errepikapena.*
17:00 *Izarren ordua.*
19:00-21:00-23:00 *Albistegi laburra*
- MARTITZENA**
19:10 *Iluntzean: Mikel Urdangarinen*

ASTEABIHITZETAN

Ekimen ugari Ekin elkarteak antolatuta

Ikastaroak, lantegiak eta berbaldiak antolatu ditu Ekin emakume elkarteak urte berrirako. Besteak beste, Musakolan aukera handiagoak eskaintzea izango da erronka berria.

Hala, joan den astean, dantzen ikastaroa hasi zuten; oraingo astean, orratz lanak egiten hasi dira eta datorren astean, ikastaro eta lantegi gehiago abiaraziko dituzte; eskulanak, adibidez: egurra, zilarra eta beira lantzeko teknikak. Eta, eguaztenean, hilak 21, elikaduraren gaineko hitzaldia emango dute Musakolan.

500 berbako hiztegia egin dute

Fagor Altzariak enpresak hiztegi berezia plazaratu du. Lantegian gehien erabiltzen diren berbak batu dituzte; 500, guztira. Eta hiztegi bat egin dute, gaztelerazko berbak erabili beharrean langileek euskarazkoak erabil ditzaten. Hala, Gabonetan, Fagor Altzariak lantegiko langile guztiei hiztegi bana opari egin zieten.

Fagor Altzariak enpresak eta EMUN kooperatibak egingako hitzarmen baten bidez, Euskara Plana abiarazi zuten lantegian, euskara dinamizatzeko helburuarekin. Orain, hiztegi txiki hori egin eta argitaratu dute elkarlanean.

Istripu larria Oñatira bidean

Martitzenean, istripu larria izan zen Oñatiren eta Elorregi auzoaren artean. Volkswagen Golf batek eta Jeep Cherokee batek aurrez aurre jo zuten. Istripuaren ondorioz, hiru lagun zauritu ziren; bat Arrasatekoa zen, eta harrapatuta geratu zen auto barruan. Suhiltzaileek atera zuten handik eta Eskualde Ospitalera eraman zuten, larri. Gainerako biek zauri arinak izan zituzten. Istripuaren ondorioz, errepidea eten egin zuten eta auto ilarak sortu ziren.



Gaur egungo dantza ikasteko aukera

Joan den asteburuan hasi zen gaur egungo dantzaren gaineko ikastaroa. Oraingo, bi lagunek eman dute izena, baina oraindik ere badago parte hartzeko aukera. Izan ere, datozen bi zapatuetan ere izango da ikastaroa. Hurrengo hitzordua bihar, zapatua, izango da, kiroldegian, 10:30ean.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Zerbait mugitzen dabil

Urte berriarekin ez dugu berrikuntza askorik eduki. Bueno, agian, bai, Euskal Herriko politikagintzan behintzat badago aldaketa baino gehiago zelanbaiteko mugimendua. Estatuko politikagintzari dagokionez, hori mugitu orduko...

Legez kanpo dagoen Batasunak alderdi abertzalei proposamen interesgarria

egin zien, eta hainbat alderdi hor dabilta buruari buelta-ka ezetza edo baietza emateko zalantzan. Argudio moduan, zalantzan ipintzen dute zeini heldu behar dioten lehengo, oiloari edo arrautzari. Ea behingoz guztiek zezena adarretatik hartzen duten, helburuarekin ados badaude, behintzat.

Nafarroan, konkretuki, bada berrikuntzarik.

Nafarroa Bai plataforma sortu dute, eta hori aurrerapauso garrantzitsua da. Hala ere, euren helburuekin bat egiten duten guztiei esku hartzeko aukera eman beharko liekete. Hori liteke aproposena.

Bestalde, Juan Maria Atutxak aditzera eman du laster politika utziko duela. Pertsonaia honen gaineko hausnarketa eginez gero, bitxia da politikagintzan egindakoak ahazteko daukagun gaitasuna.

ASTEKO IRUDIA



IKER BARANDIARAN

EUSKAL TELEBISTAKO PAILAZOEK AMAIA UDAL ANTZOKIA BETE ZUTEN LAU SAIOTAN

Joan den astelehenean eta martitzenean, Euskal Telebistako pailazoen, Txirri, Mirri eta Txiribitonek, *Trikitraka Trikitron* ikuskizuna eskaini zuten Amaia Udal Antzokian. Lau saio egin zituzten; bi saio egun bakoitzean. Zer esanik ez, lau saio horietan umeek eta gurasoek antzokia lepo bete zuten. Gainera, tele-

bista kamera mordoa ipini zituzten antzokian. Ezagun da ETBk ikuskizun horiek telebista saioak grabatzeko erabiltzen dituela; izan ere, hamar bat kamera zenbatu genituen!

Dena dela, umeek kamerei muzin egin zieten eta ondo baino hobeto pasatu zuten pailazoenkin! /I.B.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erlebedun hizkiak



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

EKONOMIA / 2004ko udal aurrekontua


Aurrekontuaren arabera, kultura etxea egiten inbertituko du Udalak diru gehien

UBANE MADERA

29.551.595 euro onartu zituen udalbatzarrak aurtengo jardunerako. Kopuru horretatik, 2.033.660 euro Iturbide egoitzarendako izango dira eta beste 1.335.315 euro AUKEA-arendako. EAJren, EAren, EBren eta Aralarren aldeko botoekin onartu zuten aurrekontua.

Joan den abenduaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrak 2004rako aurrekontua. PSE-EEk eta PPK proposamenaren kontra bozkatu zuten; are gehiago, sozialistek osoko zuzenketa egin zioten eta PPK 22 emendakin aurkeztu zizkion. PSE-EEko bozemaile Paco Garciak salatu zuen gobernu taldeak bere egin dituela alderdi sozialistak proposatutako proiektuetako batzuk. Eta gaineratu zuen hala gertatu dela Udalak ez diolako aurkeztu oposizioari aurrekontuaren proiektua. Bestalde, PPren izenean Itziar Lamarainek esan zuen Udalak ez dituela kontuan hartu oposizioko alderdiak aurrekontua egiterakoan. Aurrekontuari aurkeztutako 22 emendakinen artean, berriz, zenbait proposamen egin zituen; adibidez, zine aretoak egitea, gune komertziala eta udaletxe berria.

EBk, berriz, alderdi bion jarraira kritikatu du prentsa-ohar baten bitartez. Dio PPren emendakinek ez dutela ezer berririk ekartzen eta arrazoitu barik aurkeztu dituztela; eta PSE-EEren jarrerak erakusten duela ez dutela aurrekontuaren prozesuan parte hartzeko



borondaterik eta ideiak eta alternatibak falta zaizkiela.

BATZORDEKA AZTERTUTA

Sailez sail begiratuta, Euskara eta Kultura Sustapenari egokitu diote aurrekontutik kopuru handiena: 7.630.999 euro. Jeneralean ez da hala izaten, baina kontuan hartu beharra dago batzorde kopurua murriztearen ondorioz, oraingo batzorde bakoitzak orain arte baino sail gehiago batzen dituela bere baitan. Hortaz, diru kopuruak ere gora egin du, eta aldaketak igarriko ditugu zenbait batzordetan.

Euskara eta Kultura Sustapeneko batzordeari begiratuta, aipa-

tu beharra dago batzordearen aurrekontuaren zati handiena kultura etxea egiteko bideratu dutela (3.300.000 euro); eta beste 750.000 euro bideratu dituztela AUKEAren defizitari aurre egiteko. Horrez gainera, aipatzekoa da diru-partida bat zabalik utzi dutela haur eskola publikoarendako.

ZERBITZUAK ETA AUZOAK

Diru gehien jasoko duen bigarren batzordea Zerbitzu, Mantentze Lan eta Auzoen batzordea da: 7.165.633 euro. Kasu horretan, uren partzuergorako izango da kopuru handiena (1.153.000 euro). Eta Mankomunitaterako eta harekin lotu-

tako zerbitzuetarako ia beste 800.000 euro zehaztu dituzte. Bestalde, transferentzia korranteak eta inbertsioak kontuan hartuta, auzoetarako 313.639 euro gorde ditu Udalak; bide publikoen urbanizaziorako eta zolatzetarako lanak egiteko, berriz, 219.860 euro; eta urarekin eta saneamendurekin lotutako inbertsioetarako, 208.000 euro.

Hirigintza eta Obren Saila dator gero. 3.000.951 euro egokitu dizkiote. Horren barruan, Garibaiko lur azpiko aparkalekuarendako izango da kopuru handiena: 990.000 euro. Horrez gainera, udaletxea berritzeko lanendako 360.000 euro zehaztu ditu Udalak, eta

Oposizioko alderdiek salatu zuten ez dituztela kontuan hartu aurrekontua egiteko orduan


Oro har, %8 igo da aurrekontu orokorra, baina AUKEAren %11,2 igo da eta Iturbiderena %14,56

250.000 euro alde zaharreko plan berezarako. Aipagarria da, era berean, Santa Teresako aparkalekua egiteko diru partida bat zabalik utzi duela Arrasateko Udalak.

GIZARTE GAIK

Gizarte Sustapenaren Sailari dagokionez, 2.570.431 euro egokitu dizkiote 2004rako. Hain zuzen ere, etxeko laguntza zerbitzuarendako izango da zati handiena: 810.000 euro; eta 370.000 euro erabiliko dituzte Iturbide egoitzaren defiziterako. Txatxilipurdirako, ludoeteketarako eta gazte txokoetarako 167.000 euro bideratu dituzte eta eguneko zentrorako, Uribarriko gizarte-etxerako eta Iturbiden berritasunak egiteko diru partidak zabalik utzi dituzte.

Aurtengo aurrekontua eurotan



7.957.700 euro inbertitzeko

ERAGIN EKONOMIKO HANDIEN IZANGO DUTEN EKIMENAK:

- Kultura etxea: 3,3 milioi euro.
- Garibaiko lur azpiko aparkalekua: 0,99 milioi euro.
- Ondare-ondasunak eta Hirigintzako erosketak: 0,3 milioi euro.
- Musika etxea: 0,25 milioi euro.
- Alde zaharra: 0,25 milioi euro.
- Udaletxea berritzea: 0,36 milioi euro.
- Urarekin eta saneamendurekin lotutakoak: 0,21 milioi euro.
- AUKEA: 0,17 milioi euro.
- Auzoak: 0,15 milioi euro.
- Ingurumenarekin lotutako lanak: 0,15 milioi euro.
- Bide publikoak urbanizatzea: 0,14 milioi euro.
- Eguzki panelak ipintzea: 0,13 milioi euro.
- San Andresko bidegorria: 0,13 milioi euro.

ELKARRIZKETA

JON ARANBARRI/DANTZARIA

“Azken lau urteotan, Gabonetan elkartu eta ‘Oliver’ eskaini dugu”

ARRASATE IRRATIA

Bergarako Orfeoia *Oliver* musika ikuskizuna eskaini du hainbat hiritan. Gehienak bergararrak izan arren, arrasatear bat koreografia lanez arduratu da: Jon Aranbarri. Arrasate Irratian elkarrizketa egin zioten.

Dagoeneko lau urte egin ditu *Oliver* ikuskizunak?

Bai, orain dela lau urte hasi ginen, baina Gabonetan bakarrik egin dugu. Gogorra izan da urtero gidioa eta pauso guztiak gogoratzeko entseatzan hasi beharra. Dagoeneko Iruñean, Donostian, Bergaran, Bilbon... eskaini dugu, eta oraingoan agur esango diogu ikuskizunari. Horrekin lotuta bada bitxikeria bat: orain dela lau urte, hasi ginenean, *Oliver* pertsonaiaren papera egiten zuena umetxo zen, baina nagusitu egin da eta azkeneko urtean beste paper bat egin behar izan du. Umeen eta gaztetxoek kasuan urteen eragina asko sumatzen da, eta ikuskizun honetan ume askok hartu dute parte.

Eta zer dela eta, zu Bergarako Orfeoiaekin lanean?

Bergarako Orfeoiko zuzendari Valen Moñux ezaguna dut. Behin, Bartzelonako Lizeoan dantzatzeko enbiletan, egiten genbiltzan Monte Verdiren *Orfeo* ikuskizunera joan zen Moñux, eta berbetan ibili ginen. Zerbait batera egiteko asmoa genuen, eta, urte batzuk geroago, *Oliver* ikuskizun bat egin genuen.

Oliver aspaldiko lana da, baina ikusi ez duenari azalduko zenioke zertan datzan muntaita hori?

Bai. Charles Dickensen istorio bat da, eta *Oliver Twist*en bizitza kontatzen du. *Oliver* umezurtz-etxe baten jaio zen eta hango arduradunek *Oliver* beste etxe batera saldu zuten. Handik ihes egin zuen, eta Londresko kaleetan hainbat abentura bizi izan zituen.


Eta zuk ikuskizunean zein paper egin duzu?

Bi paper izan ditut. Lehenengo, kaleko komiko bat izan nintzen. Gerora, ostera, gauza onen espiritua izan naiz, halako pertsonaia misteriozua bat. Ona, baina misteriozua.

Zuk betidanik argi izan duzu dantza kontuetan ibili gura zenuela, ezta?

Bai, nik txikitatik esaten nuen dantzari izan gura nuela. Hemen, Arrasaten, kostata eta nire gurasoen laguntzaz, hasi nintzen eta nire zaletasuna aurrera eramandut, baina ez da erraza.

Gero, kanpoan ere ibili izan zinen, ezta?



XABIER URZELAI

“Txikitatik esaten nuen dantzari izan gura nuela, eta oso gaztetxotan baleta ikasten hasi nintzen”

Bai, Arrasateko Musika Eskolan baleta ikasten hasi nintzen. Gero, Donostian ibili nintzen, eta Zaragozan dantza klasikoan gehiago sakondu nuen. Geroago, Europan barrena ibili nintzen denbora laburrean.

Eta Arrasatera bueltatu zara?

Bai, adina aurrera doa eta lanbide horrek gorabehera handiak ditu. Arrasatera bueltatu nintzenean, baletako eskolak ematen nituen, baina orain beste arlo batzuetan nabil lanean. Aspaldi honetan amateur gisa nabil. *Oliver* eta halako ikuskizunetan lan egiteko aukerak suertatzen direnean, berehala ateratzen ditut zapatilak armairutik. Horretan ibili garenok beti gau-

“Baletako eskola batzuetan piper egiten nuen, telebistako ‘Fama’ saioa ikusteko”

de hor ibiltzeko gogoz. Izan ere, asko erakartzen du.

Zuk betidanik dantza klasikoa ikasi duzu?

Bai, klasikoarekin hasi nintzen, baletarekin. Horrez gain, dantza barrokoa eta egungo dantza ere ikasi ditut, baina gurago dut klasikoa.

Fama eta halako telebista saioek eragina izan dute zuzan?

Bai. Gogoan daukat baletako eskoletan piper egiten nuenean, *Fama* ikusteko izaten zela. Izugarri gustatzen zitzaidan. Horrez gainera, betiko musikalak ere oso gustuko ditut. Fred Astaire, Ginger Rogers eta halakoak izarrak dira niretzat. Egungo onena, ostera, Lucia Lakarra dantzaria da.

LABUR

Datorren astean odola emateko beste hitzordu bat izango dute odol-emaeleek

Oraingo astean pare bat egunez anbulatorioan izan dira Arabako Odol Bankukoak odola ateratzen. Joan den astean ere izan ziren, eta datorren astean beste bi egunez etorriko dira: martitzenean eta eguaztenean (urtarrilaren 20an eta 21ean). Betiko moduan, arratsaldean eman ahal izango da odola: 16:15etik 20:00ak arte.

Jakinarazi digutenez, odol beharra handituz doa, arrazo asko-erengatik; horren ondorioz, esan digute mota guztietako odola behar dutela, nahiz eta ikur negatiboa dutenak beharrezkoenak izan, lortzeko zailenak dira-eta.

Udarako beste bidegorri zati bat abian egongo da San Andres auzoan

Muxibar baserri parean hasi (Fagor lantegia bukatzen den tokian, erreka ondoan) eta Arrasateren eta Aretxabaletaren saihesbideko bidegurutzeraino iritsiko da San Andresko bidegorria. Otsailan hasiko dituzte lanak eta udarako bukatu. CIG SL enpresari esleitu dizkio lanak Udalak; guztira, 115.000 euro pasatxo inbertituko ditu. Hala, CIG enpresak hiru zati egokitu beharko ditu bidegorria egiteko: aurrenekoan auzobide bat dago; bigarrenean ortuak eta hirugarrenean ezpona bat, errepidearen ondoan.

Besteak beste, hiru metro zabal izango den bidea egingo dute, eta bidean atsedean hartzeko guneak egokituko dituzte, eserlekuekin eta gerizpean egoteko zuhaitzekin. Izan ere, gaur egun oinezko ugari ibiltzen da inguruan paseoan; hala, lanak bukatu ostean, ganorazko pasealekua izango dute.

Udalak baztertu egin du Musika Etxearen proiektua eta hori esleitzeko prozedura

Gaur egungo udalbatzak baztertu egin du orain arte Musika Etxea egiteko onartuta zegoen proiektua: Zerrajerako lurretan egingo dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren eraikitzea Musika Etxea. Proiektu hori bazterteaz gain, proiektua esleitzeko zabalik zegoen prozesua eten egin du Udalak.

Hala, orain beste proiektu bat dauka esku artean. Hain zuzen ere, EAJ agintaldian egon zen azkeneko aldiaren onartu zuten proiektua. Haren arabera, Musika Etxea Saiolanen eraikiko dute, erlojudun eraikinean, hain justu ere. Musika lantzen duten zenbait elkarerendako izango da Musika Etxea, besteak beste: Arrasate Musikal, Goikobalu, trikitalariak, gaitariak, txistulariak eta zehaztu barik dauden talde batzuk. Aurtengo aurrekontutik 250.000 euro bideratu ditu Udalak lanak egiteko.

Urtarrilean eskuratuko ditu Udalak Zerrajerako lurren azterketen emaitzak

Hilabete honetan jakingo du Udalak zelako kutsadura maila duten Zerrajerako lurrek. Izan ere, urtarrilean eskuratuko ditu aztertzera eramane zituzten lurren emaitzak. Behin emaitzak esku artean, Zerrajeran aurkitu zituzten biltegien ondoko lurra erretiratuko dituzte, harik eta kutsatu bariko lurra aurkitu arte. Eta gero, berriro beteko dute hustu duten gunea, orain dagoen lurren antzeko ezaugarriak dituen lurrarekin. Lan horiek guztiak egiteko 130 milioi euro beharko dituzte; erdia Udalak ordainduko du.

Gogoratu beharra dago joan den udazkenean beste lau oliobiltegi aurkitu zituztela Zerrajera inguruan; 50.000 litro olio atara zituzten ontzietatik, baina beste litro asko lurrera eta errekarara isuri ziren, biltegi batzuk apurtua zeuden-eta.

Azkenaldian Leintz Garraioak enpresaren autobusak ibar osoan dabilta lanean

Azkenaldian Leintz Garraioak enpresaren autobusak Debagoienan gora eta behera ikusi ditugu. Izan ere, orain, Arrasate herri barruko zerbitzua emateaz gain, ibarrean zerbitzu gehiago ere ematen hasi dira.

Kontua da aldaketak izan direla Leintz Garraioak enpresan joan den azaroz geroztik, PESA autobus konpainiak Arrasateko enpresaren akzioak erosi zituenetik, hain zuzen ere. Ordura arte, Tuterako Automoviles del Rio Alhama enpresa nafarrak zituen Leintz Garraioak enpresako akzio guztiak, baina azaroan PESA-ri saldu zizkion.

Hala, besteak beste, PESArekin ibili diren langile eta autobus batzuk Leintz Garraioak enpresara pasatu dira; eta badira zerbitzu batzuk lehen PESAk egiten zituenak eta orain Leintz Garraioak enpresak egiten dituenak.



Marokok okupatutako lurraldeen gaineko argazki erakusketa izan da oraingo astean Monterronen.

ELKARTASUNA/ Sahararrei laguntzeko orain arte batutakoarekin pozik daude antolatzaileak

Bost tona elikagai bidaliko dituzte Arrasatetik Aljeriara

U.M.

Jaz baino elikagai gutxiago batu dituzte Tindouf-era bidaltzeko, baina antolatzaileak pozik daude emaitzarekin: bost tona elikagai, aurreikuspenen arabera. Laguntzarik eman ez dutenek otsailera arte dute dirua emateko aukera, elikagaiak bidaltzen laguntzeko.

Arrasateko ikastetxeetan, merkataritza-gune handietan eta udaltxeko sarreran ibili dira elikagaiak batzen hilabetez. Orain,

guztia paketeetan ipintzea falta da, eta gero batutako guztia Tindouf-eko kanpalekuetara bidaltzea, kamioiz. Udaleko teknikari Jone Beitialarrangoitiak emandako datuen arabera, pozik daude batutakoarekin. Orain, guztia kamioietan bidaltzeko dirua batzen segituko dute otsailera arte. Bi kontu korrante zabaldu dituzte horretarako: Euskadiko Kutxan: 3035 0060.45 060004746 9 eta Kutxan: 2101 0200440011305190.

Edozelan ere, orain arte batutakoarengatik eta herritarrek, elkarteek, saltokiek... erakutsi-

tako elkartasunarengatik eskerak eman gura ditu Jone Beitialarrangoitiak.

Aljeriako basamortuan, Tindouf-etik gertu 200.000 errefuxiatu inguru bizi dira gaur egun baldintza eskasetan; besteak beste, oinarriko elikagaien premia larria dute.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Bestalde, oraingo astean Marokok okupatutako lurraldeen gaineko erakusketa izan da Monterronen, Xabier Errasti *Jerras*-ek eta Idoia Zabaletak ateratako argazkiekin.

Udalako abaritzak babestu gura ditu Ingurumen Sailak

U.M./ARRASATE IRRATIA

Arrasaten eta Santurtzin bakarrik dago Udalan dagoen abaritz mota. Eta funtzio garrantzitsua betetzen du naturaren ekosisteman. Hala, Udaleko Ingurumen Sailak babestu egin gura ditu.

Hala adierazi dio Ingurumen Saileko arduradun Joseba Ugaldek Arrasate Irratiari.

Arrasateko landaretzaren gainean azterketa egin zuen Urtzi Mendizabal biologo arrasatearra. Hain zuzen, azterketa horretan azaltzen diren abariztiak

babestu gura ditu Udalak. Arrasaten hiru lekutan dago abaritz mota hori: Larragain inguruan, Udalara bidean Kontzezinoko komentutik gora eta Udalaren eta Kontzezinoko komentuen arteko pinudi baten ondoan, hain zuzen ere.

GURE HISTORIAREN ZATI

Ekosistemarako ona izateaz gain, zuhaitz hori gure historiaren erakusgarri ere bada. Urtzi Mendizabalen esanetan, zuhaitz mota hori klima mediterranea duten lekuetan bakarrik hazten da. Horrek erakusten du sasoi batean klima mediterranea egon zela

hemen, eta ez ozeanikoa, batzuek uste zuten moduan.

KONPON DAITEKEEN ARAZOA

Urtzi Mendizabalek bere azterketan esaten du komentutik gora dauden abariztien egoera ez dela egokia; ahuntzak ibiltzen dira inguruan, eta animaliek zuhaitzen hostoak eta kimuak jaten dituzte. Edozelan ere, arazo horrek konponbide erraza dauka: abariztiak hesi batekin inguratzea animaliek jan ez ditzaten. Horixe egiteko asmoa du Udalak: abaritzak dauden lurak erosi eta hesi batekin inguratu, animaliarik sar ez dadin.

LABUR

Arrasateko emakume bat hil zuten joan den egubakoitzean; ustez bikotekideak hil zuten

MC.M.A. 33 urteko arrasatearra hil egin zuten joan den egubakoitzean. Torreveijan bizi zen emakumea, bikotekidearekin, eta ustez bikotekideak berak hil zuten, tratu txarrak eraginda. Epaitetik medikuak egindako azterketaren arabera, behintzat, norbaitek itota hil zen.

Bikotekidea berehala atxilotu zuten eta polizia etxera eraman; laster deklaratu du epailearen aurrean. Edozelan ere, hasieran, behintzat, ez zuen onartu emakumea hil zuenik.

Herenegun, eguaztena, egin zituzten MC.M.A. arrasatearraren aldeko hileta elizkizunak Torreveijan. Bi seme-alaba zituen.

Alkatearen bulegoari egindako eraso bere gain hartu dute gutun anonimo baten bitartez

Erredakzioan jasotako gutun anonimo baten bitartez, joan den abenduan Ignazio Lakuntza alkatearen bulegoari eraso egin ziotela onartu dute. Hain zuzen ere, pintura gorria eta horia bota zuten bulegoaren kanpo aldera. Gutunaren arabera, Arrasateko alkatearen politikarekin ados ez daudelako egin zuten eraso.

Melina Lopezek eskuratu du, bigarren aldiz, Emakume Sailak ematen duen beka

Hiru proiektu aurkeztu dituzte beka eskuratzeko. Eta Melina Lopezek aurkeztutakoa izan da interesgarriena. Hala adierazi digu Emakume Saileko teknikari Maite Barreñak. Udal teknikariak gaineratu digu Melina Lopezek irabazi arren aurkeztutako beste proiektu bat ere oso interesgarria dela, eta euren asmoa dela proiektu horrekin beste zerbait egitea. Edozelan ere, oraindik ez dute besterik zehaztu. Melina Lopezen proiektuari dagokionez, berriz, aurreratu digute artearekin eta generoarekin lotutako lana dela. Orain, Emakume Saileko ordezkariak eta Melina Lopezek berak batzarrara egingo dute bestelako xehetasunak zehazteko.

Emakume Txokoak antolatutako euskarazko ekitaldietan parte hartzeko eskaera egin dute

Oporraldiaren ostean, Emakume Txokoa urte berrirako ekitaldi mordo prestatzen dabil. Emakume Saileko arduradun Joxe Etxeberriak Arrasate Irratiari adierazi zion orain arte moduan segituko dutela: ekintzak egiten. Eta, herritarren nahiak aztertuko dituztela, txokoaren eskaintza egokituko. Dena dela, arazo bat dagoela ere esan zuen: gaztelarazko ekintzetara jende mordo joaten da; eta euskarazko ekintzetara, berriz, jende gutxi. Halakoetan parte hartzeko euskara maila alturik ez dela behar esan zuen, eta euskarazko ekitaldietan parte hartzeko ahalegina egiteko eskatu zion jendeari.

la zortzi mila euro batu ditu Harremanek Gabonetan

U.M.

Eguberritan Portaloian ipinitako dendan ia zortzi mila euro batu ditu gobernuz kanpoko Harreman elkarteak. Diru horren zati bat Harreman elkarteak Hiper Eroskin duen dendarako izango da.

Pozik daude Harreman elkarteak Gabonetan ipinitako dendan jasotako diru kopuruarekin: ia zortzi mila euro. Hori bai, Harremaneko kide Elisa Maiztegik argitutakoaren arabera, batutako diru guztia ez da Harremanendako izango. Hain zuzen ere, hiru mila eurotik gora Madrilgo COPRODEL enpresarendako dira, izan ere, enpresa horrek zenbait produktu ekarri zituen Arrasateko dendara. Oro har, Afrikatik eta Hego Amerikatik

ekarritako produktuak izan ziren salgai Portaloian, artisautzako produktuak, hain justu ere: jaitzak, eskumuturrak, lepokoak...

Edozelan ere, zortzi mila euroetatik lau mila euro eta erdi Harremanendako izango dira Elisa Maiztegik jakinarazitako aren arabera, Hiper Eroskin duten dendarako. Izan ere, dena da hura zabalik edukitzeko behar handiak izaten dituzte, eta urtean zehar ez dute diru-sarrerik larregi izaten.

SAN CLEMENTEKO BUKATZEAR

Dena dela, eta nahiz eta aurrean hala ez izan, orain arte, Harremanek batu duen dirua Kolonbiako San Clementen egiten dabilen proiektuarendako izan da. Esan digute bukatze arduradun hori, eta laster beste batekin hasiko direla.

KOADRILAKOEN PARTETIK, ZORIONAK, PREMIN!!!

Abenduaren 30ean bete zituen Premin Sampedro preso arrasatear-
rrak urteak, eta hori ospatu guran bere koadrilakoak kafea
hartzeko elkartu ziren. Gustura baino gusturago egon ziren lagun
arte eta euren laguna gogoratu zuten. Kafea hartzeaz gain, Preminen
koadrilakoek hainbat argazki ateratzeko aprobetxatu zuten; bide batez,
Premini elkartasuna adierazteko. Gainera, lelo hau jartzeko eskatu
digute: *Zure urteurrenerako elkartu garen moduen, ea aurten presuek
Euskadira ekarten dittugun.*



EUSKAL HERRIA AURRERA! ZOZKETAKO SARIA: 900 EURO

Aurtengo Euskal Herria Aurrera! zozketako saria Uarkape aldera joan
da, Kakok eskuratu du-eta sari hori. 6.014 izan da zenbaki saritua.
Sari horri esker, urtarrileko *aldapa gora* leunagoa izango da Kakoren-
dako eta bere neskalagunarendako. Astelehenean eman zioten saria, eta
gustura zen Kako: "Diru horrekin bainuetxe batera joango gara, lasai-lasai
egotera". Ez da saria gastatzeko modu txarra!



TXIKILANDIAN LAN ONDO EGIN ETA GERO, PARRANDAN!

Ohitura den moduan, Gabonetan Txikilandian jo eta ke lanean ibili eta
gero, antolatzaileak parranda egitera joan ziren Bergarara. Ondo
baino hobeto ibiltzen badira ere, Txikilandia antolatzea ez da
txantxetako kontua, eta egun berezi horietan lan handia egiten dute,
sekulako gazte mordoak joaten da-eta. Horregatik, Errege egunean gustura
joaten dira Bergarara, giro paregabea egoten da-eta. Txikilandia ahazteko
asmoz Bergarara joan, eta Txikilandia iragartzen duten kartelak nonahi!!!



GABONETAKO PEÑA ZUBI TXAPELKETAN, ARRASATEKO TALDEAK ONDO BAINO HOBETO

Gabonetan Peña Zubi Txapelketa jokatu dute
Aretxabaletan, eta Mondragoeko taldeek
txapelketa txukuna egin dute. Guztira 18 taldek
hartu dute esku txapelketan. Hiru maila izan dira: 1991-
92 urteetan jaio zirenek multzo bat osatu zuten;
1993an jaiotakoek beste multzo bat; eta hirugarren
multzoa 1994an jaiotakoena izan zen. Arrasateko hiru

ordezkari izan zituen: Joma, Okorotegi taberna eta Ume
Gaiztoak taldea. Goialdeko argazkian dauden Okorote-
gi tabernakoak, gainera, euren multzoko txapeldunak
izan ziren. Beheko argazkia Ume Gaiztoena da. Finalak
urtarrilaren 5ean jokatu zituzten, eta sari banaketa ere
egun horretan izan zen. Gainera, Andoni Zubizarreta
izan zen sariak banatzen.



XABIER URZELAI

Mondrako alebin mailakoek hirugarren postua eskuratu berri dute Donostiako Txapelketan. Argazkian, nagusiekin.

FUTBOLA

Mondrak eta Zarautzek ondo jokatzeko dakitela erakutsi zuten (1-1)

Mondrak laugarren postuan amaitu du lehen itzulia, liderrak baino lau puntu gutxiagorekin

XABIER URZELAI

Preferente mailan oraingo asteburuan hasiko dute bigarren itzulia, eta Mondrak etxean jokatu du, Hernaniren kontra. Joan den asteburuan arrasatearrek Zarautzen bisita izan zuten, eta bi taldeek ere ederto erakutsi zuten zergatik dauden goiko postuetan; partidu ikusgarria egin zuten.

Joan den zapatuan Atxabalpera hurbildu ziren zaleek zapo gazi-gozoa eraman zuten etxera. Norgehiagoka ikusgarria jokatu zuten Mondrak eta Zarautzek; goiko postuetan zergatik dauden argi erakutsi zuten. Bi taldeak ondo jokatzeko ahaleginu ziren, eta jokaldi politikak izan ziren; lehenengo zatian batez ere. Bi taldeak ondo kokatuta, baloia-aren jabetza zeukatenean biak hala biak ondo jokatzeko ahaleginu ziren, eta hori eskertzekoa da.

Lehenengo gol aukera garbia Mondrak izan zuen: Illart Etxebarria atezainaren aurrean bakarrik geratu zen, baina atzetik egindako ustezko falta baten ondorioz lurrera erori zen. Epai-leak ez zuen ezer ikusi, eta Arrasateko zaleek gogotik egin zuten protesta. Ordu laurden geroago, Muxi-k jokaldi ona eginda eta pase hobea emanda, Illart atezainaren aurrean geratu zen berriro ere, eta oraingoan ez zuen barkatu (1-0). Lehenengo zatia amaitu zen arte indarrak paretuta egon ziren, baina bi taldeetako inork ez zuen golik egin.

BIGARREN ZATIAN, LARRI

Bigarren zatian, berriz, Zarautz partiduari buelta emateko asmoz

zelairatu zen. Kostaldeko taldeak erdialdean jokalaririk onak dituela erakutsi zuen, eta Mondra estu eta larri ibili zen hainbat jokalditan. Hasierako estuasunei aurre eginda, indarrak berriz ere paretatu egin ziren. Zarautzek edozein jokalditan berdinezakeen partidua, baita Mondrak bi eta hutsekoa egin ere. Tamalez, kanpotarrek asmatu zuten: falta jaurtiketa bat ondo botata Ornesagastik banakoa egin zuen. Azken minutuetan Mondra larri ibili zen: Lasagak bigarren txartel horia ikusi zuen, eta Mondra hamar jokalarirekin geratu zen.

Zarautzek, baina, ez zuen aukera hori aprobetxatu, neurri handi baten, Mikel Calvo atezainak, beste behin, atezain ona dela erakutsi zuelako. Murua ere ahaleginu zen azken minutuetan ezustea ematen; jokaldi

onak egin zituen, baina bakarrik ibili zen aurrealdean. Zapatuan Jon Muruak ez zuen golik egin, eta oraingo denboraldian hori albiste da.

BI NORGEHIAGOKA ETXEAN

Oraingo asteburuan ere Mondrak etxean jokatu du, Hernaniren kontra. Arrasateko taldeak Hernanin hasi zuen denboraldia, eta erregional mailatik igo berri zen taldeak lehenengo ezustea eman zuen. Orduetik hona lau hilabete pasatu dira. Tarte horretan, bederatzigarren partidu irabazi, bost berdindu eta bost galdu ditu Mondrak. Lehenengo itzulirako ez dira emaitza kaskarrak. Ondo legoke bigarren itzulian ere gauzak berdinez edo hobeto egitea. Horretarako, orain dela lau hilabete bezala, Hernaniri irabazi beharko diote.



XABIER URZELAI

Nagusien partidua hasi aurretik alebinak txalo artean zelairatu ziren.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Rayo Aldeano - Saukelu Scream	5-7
Bikain Akad. - Aloña Taberna	4-7
You Know - KPPC	10-1
Billy & The... - Abokajarro	5-7
Iriztu Taberna - Alpagat-Estutu!!!	4-0

B MULTZOA

Errasti Kristaldegia - Tomahawk	3-7
Dream Team - Speed Boys	3-5
Etzerat - Lasagabaster	7-6
Goma-2 - Dribling	3-8
Fuxion - El Ekipo A	7-7

PARTIDUAK

URTARRILAK 17, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Betrayer - Saukelu Scream. Bikain A.
12:00: Bikain Akad. - Iriztu Tab. Saukelu S.
13:00: Etzerat - Goma-2. Iriztu Taberna
14:00: Dream Team - Fuxion. Goma-2
15:00: Errasti Kristald. - El Ekipo A. Fuxion
16:00: You Know - Billy & The... Errasti Kri.
17:00: Tomahawk - Lasagabaster. You Know
18:00: AT Celaya - Abokajarro. Lasagabas.

URTARRILAK 18, DOMEKA

12:00: Rayo Alde. - Alpagat-Est. AC Surcos
13:00: AC Surcos - Speed Boys. Alpagat

Deskantsua: Aloña Taberna, Dribling, KPPC.

URTE BERRIKO BIGARREN JARDUNALDIA JOKOAN

2004AN GAUZAK EZ DIRA LARREGI ALDATU: WHISKERIA KALEAN DA

Whiskeria taldeari 2004ak ez dio onik egin, antolatzaileek talde hori txapelketatik kanpo utzi dute-eta. AC Surcos taldearen kontra jokatu behar zuten, baina jaso behar zuten jipoiaren beldur-edo, ez ziren partidura azaldu. AC Surcos taldekoek, berriz, beste aste bate izan dute Gabonetako turroiak kendu eta sasoi errekuperatzeko.

Zapatu goizean, partidu interesgarria izan zen ikusgai. Billy & The Cowboys eta Abokajarro taldeek lagun arteko derbia jokatu zuten. Horrelakoetan gertatzen den moduan, partidu ikusgarria bezain gogorra izan zen, gogorregia antolatzaileen usterako. Horrenbestez, bi talde horiek fidantza barik geratu dira. Hori bai, gogorkeria guztiak Zaldibarren geratu ziren, partiduaren ostean koadrila biek babarrun-jan ederria egin zuten-eta. Bestalde, Etzerateko jokalaririk batek eta Lasagabasterreko beste batek abisua jaso dute.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Hernani Preferentea. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.
Mondra - Kostkas Miren Ohor. Gazteak Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
Hernani - Arrasate Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 16:15. Zubipen.
Allerru - Arrasate Lehen Infant. Zapatuan. 11:00. Lezon.
Gasteiz Cup - Mondra Neskak. Zapatuan. 17:45. Sansomendin.
Arrasate - Eibar (Maila horretako hainbat taldeek jokatu dute Ibarren). Alebinak. Domekan. 10:00. Aretxabaletan.
SASKIBALDIA
Getxo - Ointxe Arrasate Seniorrak. Domekan. 11:00. Getxon.

Arrasate - La Salle

Juniorrak mutilak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

Ordizia - Arrasate

Kadeteak mutilak. Zapatuan. 10:00. Majorin.

ESKUBALDIA

AGR Arrasate - Ormaiztegi Lehen territ. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Pulpo - Arrasate C 2. Territorial. Domekan. 12:00. Lubakin.
Arrasate B - BKL CAF 2. Territorial. Domekan. 11:30. Iturripen.

ERRUGBIA

Arrasate - Zarautz Seniorrak. Zapatuan. 16.15. Garagartzan.
Arrasate - Atletico Bera Bera Gazteak. Domekan. 10.45. Garagartzan.
Atletico Bera Bera - Arrasate Kadeteak. Domekan. 11.30. Zarautzen.

ELKARRIZKETA

IKER ELORTZA/ERRUGBI JOKALARIA

"Oraingoz, errugbia oso gustuko dudan kirola baino ez da"

XABIER URZELAI

Arrasate Errugbi Taldeak norgehiagoka garrantzitsua jokatu du bihar Zarautzen kontra. Garagartzako zelaian egongo den jokalarietako bat, Iker Elortza, Euskadiko Selekzioarekin izan berri da, talde nagusiarekin. Horren gainean eta biharko partiduen gainean egin dugu berba.

Orain arte Patxi Gorosabel izan da Euskadiko talde nagusiarekin jokatu duen azken mondragoetarra. Orain, Iker Elortza da azkena.

Bai, gauza polita da hori. Egia esan, ez diot buelta askorik eman, baina poztekoa da. Patxi orain dela urte batzuk izan zen azkeneko selekzioan, eta ni joan naitzen arte ez da arrasatearririk egon.

Zelako esperientzia izan da?

Oso ona. Urtarrileko lehenengo asteburuan izan nintzen Euskadiko talde nagusiarekin entrenatzen eta jokatzeko, eta oso esperientzia ona izan da. Bi egun egin genituen Tarazonan, Nafarroa eta Zaragoza artean, eta oso gustura ibili naiz.

Horrelakoetan asko ikasten da.

Bai. Azken baten, esperientzia handia daukan jendearekin entrenatu eta jokatu dut, eta hor asko ikasten da. Gainera, oso giro ona egon da taldean; hasiera-hasieratik eroso egon nintzen eta presio barik jokatzeko eskatu ziguten, lasai ibiltzeko. Lekua ere oso ondo dago; seminario moduko bat da, eta Espainiako Selekzioa han egoten da. Errugbian egiteko bi zelai daude, eta ondo gertatuta dago dena.

Azaldu iezaguzu asteburu horretan egin zenutena.

Zapatu goizean irten ginen, zortziak aldera. Hamaikak aldera iritsi ginen Tarazonara, eta iritsi eta berehala lehenengo entrenamendua egin genuen. Bazkaldu eta gero, arratsaldean ere entrenamendua izan genuen eta domekan lagun arteko partidua jokatu genuen.


Noren kontra jokatu zenuen lagun arteko partidua?

Espainiako 20 urtetik beherako selekzioaren kontra jokatu genuen. Gabonak aldera bi selekzio horiek urtero egiten dute lagun arteko partidua hori. 12-27 irabazi genien.

19 urterekin Espainiako Selekzio horretan jokatzeko adin aproposa daukazu.

Bai, baina ez dut neure burua Espainiako Selekzioan ikusten.

Zein alde dago Euskadiko Selekzioaren eta Euskariens Selekzioaren artean?



XABIER URZELAI

"Ez dut nire burua Espainiako selekzioan ikusten; horri ez diot buelta larregi ematen"

Euskadiko Selekzioan hego Euskal herriko jokalariek jokatzen dute. Euskariens taldean, berriz, hego Euskal Herrikoek eta Iparraldekoek bat egiten dute. Selekzio sendoa da hori; laster Irlandaren kontra lagun arteko partidua jokatu dute. Hego Euskal Herriko hainbat jokalarri Iparraldean dabilta jokatzeko, eta Liga Txapelketa jokatzeko dabilta ez ziren Tarazonara joan. Horregatik izan genuen besteok lekua.

Asteburuari begiratu gero, partidua garrantzitsua jokatu duzue bihar.

Bai, hil edo biziko partidua izango da. Argi dago hurrengo fasera Zarautz eta gu sailkatuko garelako, baina gure helburua lehe-

"Biharko partidua oso garrantzitsua da, gure helburua Zarautzen aurretik geratzea da-eta"

nengo postuan sailkatzea da. Euren zelaian bi puntuko aldearekin galdu genuen, eta Garagartzan irabazi egin behar diegu, alde handiagoarekin, gainera. Orain lortutako puntuak hurrengo fasean baliagarri izango dira; horregatik da garrantzitsua biharko partidua.

Garagartzako zelaian jokatu duzue, jokatu edo...

Garagartzako zelaian egoera lotsagarria da, eta denbora luzea daramagu hori esaten. Uda partean zerbait, baina orain ezinezkoa da hor ondo jokatzeko. Udalak aspaldi egin zuten Mojatetik proiektua, baina... Atletismokoak ere ez daude askoz hobeto, Arrasateki kirol instalazio hobek behar ditu.

Lander Errasti arrasatearrak Euskadiko marka hobetu du

X.U.

Lander Errasti pertika jauzilari gazteak Euskadiko 17 urtetik beherako marka hobetu zuen urtarrilaren lehenengo zapatuan. Gutxi dira 15 urterekin 3,40 metroko jauzia egiteko gauza diren atletak.

Lander Errastik urte eta erdi darama pertika jauzia egiten, eta dagoeneko Euskadiko marka ondu du. Urtarrilaren 3an, Euskadiko 17 urtetik beherako txapelketan 3,40 metroko jauzia egin zuen; lehenengo saiakeran, gainera. 17 urteko bigarren sailkatuak ere marka hori egin zuen, baina hirugarren saiakeran. Horrela, mondragoetarrek lehenengo postua eskuratzeaz gain, ordura arteko Euskadiko marka hobetu zuen.

Fernando Zufiria Arrasateko taldeko entrenatzaileak dio Landerrek gaitasun handia duela: "Adin horiekin berehala ikusten dugu pertikarekin jauzi egiteko gauza diren edo ez. Landerrrek gorputz aproposa dauka, eta ausarta da, baina oraindik oso gaztea da, eta hobe da poliki-poliki joan. Entrenamenduetan 3,50 metroko jauziak ere egiten ditu, baina dagoeneko pertika txiki geratu zaio, bigunegia". Euskal

Herrian gutxi dira adin horrekin pertika jauzia egiten dutenak: "Gorputz egokia edukitzeaz gain, garrantzitsuagoa da ez beldurtzea; asko eta asko ez dira ausartzen horrelako garaiera-ko jauzia egiten".


Fernando Zufiria urte asko daramatza atletismoan, eta argi dauka atleta gazteekin kontuz ibili behar dela: "Taldeen ondo dabilta hainbat atleta daude, baina oso gazteak dira oraindik. Larregi eskatuz gero nekatu egingo dira, eta adin horiekin ez da horrelakorik egin behar".

JONATHAN PEREZ ANOETAN

Azken urteotan maila ona erakusten dabilen Jonathan Perez Anoetan izango da asteburuan, Euskadiko Txapelketan. Arrasateko atleta min hartuta egon da orain arte, eta helburu zehatz barik joango da txapelketara.

Bestalde, ondo dabilen beste atleta gazte bat, Markel Blanco, Zestoan korrituko den Gipuzkoako Txapelketan izango da domekan. Arrasatearrak 4.800 metroko lasterketan hartuko du esku. Markel Blanco, baina, ez da Zestoara bakarrik joango, Javier Mentxaka, Javier Diez, Maria Jose Gil eta Mari Fran Alonso beteranoak ere han izango dira-eta.

FOTOKIROLA



Formigalera Besaiderekin

Besaide Mendi Elkarteak eski alpinoa egiteko aukera eskainiko du aurten ere. Oraingo asteburuan hasi eta apirilaren 3ra eta 4ra arte, asteburu eskiatzera joateko aukera izango da. Irteera horiek Formigal eski estaziora egingo dituzte. Irteera goizeko bostetan izango da, eta itzulera domeka gauean egingo dute, bederatzietan. Horren harira, gura duenak sei euroren truke bi orduko ikastaroa hartu ahal izango du, eta materiala estazioan bertan alokatu ahal izango da. /X.U.

Ointxek ondo hasi du jaitsiera fasea, talde sendoenari irabazita (90-82)

XABIER URZELAI

Ointxe Arrasatek ondo baino hobeto hasi du jaitsiera fasea. Viajes Marfil taldea lidertzari eusteko asmoz etorri zen Arrasatera, baina Mondragoeko taldeak argi erakutsi zuen gauzak ondo egiten dituztenean eurei irabaztea ez dela batere erraza.

Viajes Marfil talde nafarra gauzak ondo egiteko asmoz etorri zen Arrasatera, eta partiduko lehenengo minutuetan dena egin zuten ondo. Gorka Zurutzaren mutilak asmatu ezinka zebiltzan, eta berehala aurreratu ziren kanpotarrak (5-12). Orduan, baina, Arrasateko taldeak hobetu egin zuten defentsa, eta kanpoko jaurtiketak ondo baino hobeto eginez norgehiagoka parekatu eta aurre hartu zuen (48-42).

AZKEN MINUTU ERABAKIGARRIAK

Hirugarren laurdenean Zurutzaren mutilek bide onetik jarraitu zuten, eta orduan lortu zuten partiduko alde handiena (52-42). Viajes Marfil, baina, ez zegoen lo: zorigaiztoko bost minututan kanpotarrek 0-12ko partziala eginez Ointxek zeukan aldea txikitu egin zuten. Minutu gaitz horiek gain-



OLAIA MONDRAGON

Mondragoeko taldeak ondo jokatu zuen azken laurdena, erabakigarria izan zena.

ditzeko ardura Arrasateko taldeko pibotek hartu zuten, eta ondo bete zuten lan hori.

Laugarren laurdena emozio handikoa izan zen. Bi taldeak pare-parean zeuden eta ez zegoen batere argi nor irabaziko zuten. Bi jokaldi erabakigarritan erabaki zuen Ointxek partidua. Lehenengo jokaldian Jagoba Gamarrak balio handiko hiruko saskiratzea egin zuen. Eta, segundo gutxira, Iñigo Biain oñatiarrak

tapoi ikusgarri bati esker kanpotarren erasoak ekidin eta, segidan, ikusteko moduko matea egin zuen. Jokaldi hartan, Iñigo Biainek Iturrieko zaleak zutitza lortu zuen.

Garaipen garrantzitsu horrekin, mondagoetarrek ondo hasi dute jaitsiera fasea. Oraingo asteburuan Zurutzaren mutilek laugarren postuan dagoen Getxoren kantxan jokatuko dute. Partidu gaitza hori ere.

AGR Arrasatek gero eta gertuago du igoera fasea

X.U.

Joan den domekan, AGR Arrasatek erraz irabazi zion Donibaneri (23-11). Bazirudien partidu parekatua izango zela, baina talde bakarra izan zen Iturrieko kantxan: Arrasatekoa, hain zuzen ere.

Arrasateko eskubaloiko talde nagusiak erraz baino errazago irabazi zion Donibaneri. Garaipen horrekin, mondagoetarrek igoera fasetik oso gertu daude. Liga amaitzeko hiru partidu geratzen dira, eta nahikoa dute partidu bat

irabaztearekin. Joan den astean erakutsitako maila erakusten badute, helburu erraza da hori.

DONIBANE, MAKAL

Orain arte Donibanek talde sendoa izan du. Joan den astean, baina, kanpotarrak ez ziren kontrario izan. Arrasatek hasieratik bukaerara arte egin zituen gauzak ondo, eta kanpotarrek ez zuten ia aukerarik izan.

Atsedenaldirako etxeokoa 14-8 ziren aurretik, eta bigarren zatian alde hori handitu egin zuten. Donibanek amore eman zuen, baita gol zaparrada galanta jaso ere.



OLAIA MONDRAGON

Oraingo asteburuan ere AGR Arrasatek Iturripen jokatuko du, Ormaizteginen kontra.

MULTIOPTICAS



Ondo ikusteko behar ditudalako

bonardi armazoa
35€



Nire lanerako oso garrantzitsuak direlako

bonardi armazoa
35€



Aldatzea gustatzen zaidalako

bonardi armazoa
35€

LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel. 943 51 78 11
ERRENERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko, 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

ARTEA / Margolanen eta eskulturen erakusketa

Arrasateko, Bergarako eta Bilboko artistek erakusketa ipini dute Arregi galerian

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Arregi galerian ia hilero ipintzen dituzte artisten erakusketak. Pasatu berri diren Gabonetan, esaterako, Arrasateko, Bergarako eta Bilboko hainbat artista batu eta erakusketa kolektiboa egin zuten. Urtarrilaren 23ra arte ikus ditzakezue lanok.

Iñigo Arregik, Arrasateko Arregi galeriako arduradunak, oso gustuko du artea. Arrazo horregatik, denda zabaldu zuenetik hona hainbat erakusketa antolatu ditu. Ibarreko artistez gain, Bizkaiko beste batzuek ere ipini dituzte euren lanak ikusgai eta salgai, jakina.

2002ko Gabonetan, erakusketa kolektiboa antolatu zuen. Eta aurten errepikatzea erabaki du. Hamahiru artistaren lanak batu ditu; hamabi margolariak eta bat eskulturagilea. Bakoitzak egiten duen lanaren eredu.

SEI ARRASATEAR

Hamahiru horietatik, sei arrasatearrak dira: Martxe Arana,

Juan Luis Goikolea, Iñigo Arregi, Iñaki Riviere eta Jabi Mayor. Beste hiru bergararrak dira: Ricardo Azkargorta, Juan Jose Altuna eta Xabier De Zerio. Eta gainontzeko bostak bilbotarrak dira: Fernando Biderbost, Ramon Zumalabe, Jabi Ramos, Ramon Perez eta Elisa Espina.

Xabier De Zerio eskulturagileak eta Jabi Ramos margolariak lehenengo aldiz ipini dituzte euren lanak erakusgai Arregi galerian. Modu berean, lehenengo aldia da galeria horretan eskulturak ipintzen dituztena.

Erakusketa hori 2003ko abenduaren 19an zabaldu zuten, eta 2004ko urtarrilaren 23ra arte egongo da ikusgai. Guztira, 40 margolan eta hiru eskultura batu

dituzte, eta margotu edo landu dituzten gaiek ez dute euren artean inolako loturarik.

GEHIENAK OLIOAK DIRA

Margolan horietatik gehienak olioak dira, baina badira salbuespen batzuk. Esaterako, Elisa Espinak arte digitala egiten du; Jabi Mayorrek akuarelak egin ditu; eta Ramon Zumalabek, marrazkiak.

Bestalde, artistek hainbat ildo landu dituzte; besteak beste, erretratu serieak -Ramon Perez-, paisaiak -Jabi Ramos- eta eskuhartze arkitektonikoa paisaian -Ricardo Azkargorta-.

Hainbat lagunek ikusi dute erakusketa, eta zenbait margolan dagoeneko salduta daude.

Behin talde-erakusketa bukatu eta gero, Iñigo Arregik banakako erakusketak antolatzen segitu gura du. Hala ere, azpimarratu gura izan zuen hemendik aurrera erakusketak hilabetean behin izan beharrean bi hilabetean behin izango direla. Arregik aurreratu zigun datozen hilabeteotan Ramon Azkargorta eta Martxe Arana eramango dituela.



Guztira, 43 lan batu dituzte Arregi galeriako erakusketan.

Hainbat artistak olioak, eskulturak, akuarelak eta marrazkiak batu dituzte



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Zoruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



ANTZERKIA/Txalo antzerki taldeak 'Cabaret Latino' ikuskizuna eskainiko du

Kabaret giroa bizi duen ezohiko bikote baten bizipenak antzeztuko dituzte

IKER BARANDIARAN

Domekan, urtarrilaren 18an, Txalo antzerki taldeak *Cabaret Latino* ikuskizuna eskainiko du. 19:30ean izango da, Amaia Udal Antzokian. Felipe Lazkanok zuzendu du lan hori, eta protagonistak Paco Sagartzazu eta Itziar Lazkano aktore ezagunak dira.

Udaleko Kultura Sailak 2004ko lehen antzerki saioa antolatu du. Domekan, urtarrilaren 18an, Txalo antzerki taldeak *Cabaret Latino* izeneko ikuskizun berezia eskainiko du.

Cabaret Latino ikuskizunak antzerkia, dantza eta musika uztartzen ditu. 2003ko irailean estreinatu zuten Barañainen, eta ordutik hona ibilbide luzea egin du. Protagonistak Paco Sagartzazu -Marlen- eta Itziar Lazkano -Maurice- aktoreak dira. Horiez gain, bi dantzarik ere esku hartze handia izango dute: Ines Uriartek eta Iñigo Fidalgok.

ZUZENDARIAK, HAINBAT SARI

Felipe Loza zuzendariak ibilbide luzea dauka, eta, besteak beste, Antzerkiko Ercilla eta Donostia 2002 sariak jaso ditu. Oraingoan, *Cabaret Latino* lanarekin, lehenengo aldiz berak idatzitako antzezlan bat zuzendu du. Modu berean, musikak oso garrantzi handia dauka lan horretan, eta Jose Manuel Urrexola arduratu da horretaz.

Lan horretan, Marlenek eta Mauricek osatzen duten ezohiko bikotearen istorioa kontatuko dute. Marlen 30 urtetik gorako kabareteko abeslaria da eta Mau-



Paco Sagartzazuk eta Itziar Lazkanok, barrea eragiteaz gain, gogoeta egiten ere lagunduko digute.

rice, berriz, 50 urtetik gorako traxestua da. Hark ere kabaretetan egiten du lan.

Kontatuko duten istorioa 1939an hasten da, Bartzelonan. Francoren armadak setiatuta dauka hiria. Marlenek alkoholarekin arazo handiak ditu eta bere buruaz beste egitea pentsatu du. Halako baten, Marlenek ikuskizun lizunak egiten dituen errebistako marikoi bat ezagutuko du,

Maurice. Eta azken horrek lan-kide bat behar du; hala, harremana hasiko dute.

BIKOTEA IHESAN ETA GILTZAPEAN

Frankoren jarraitzaileek Bartzelona hartzean, bikoteak Parisera ihes egin beharko du. Han, *variete* ikuskizunetan arrakasta handia hartuko dute, eta poliki-poliki harreman sentimentala hasiko dute. Horren ondoren,

nazien inbasioaren ondorioz, biak kontzentrazio-esparruetara eramango dituzte. Nork bere trikimailuak erabiliko ditu esparru horretan bizirauteko. Ordu-rako, Mauriceren osasunak txarrera egingo du, baina La Habana alde egitearekin amets egiten dute.

Felipe Loza zuzendariak kabareten arloa goraipatu gura izan du, pertsonai horien bitartez.

Hiru film interesgarri eskainiko dituzte datozen egunotan Amaia Udal Antzokian

I.B.

Urtarril hasiera ezker, Udaleko Kultura Saila filmak ematen ditu Amaia Udala Antzokian, egubakoitzetik astelehenera. Horrez gain, eguenetako ohiko zinekluba egubakoitzera pasatu dute. Datozen egunetan ere egongo da zer ikusi.

Udaleko Kultura Sailak apustua egin du asteko lau egunetan Arrasaten filmak emateko. Urtarril hasieran hasi zen, eta horretan jarraitzen du. Kultura Saileko arduradun Ines Aldairen esanetan, helburua da filmak ikustera Gasteizera joan ez gura duenak Arrasaten aukera hori izatea. Bitartean, Amaia Udal Antzokian filmez

gain, ohiko antzezlanak, batzarrak eta bestelakoak ere uztartu gura dituzte. Hasiera baten, sei hilabeteko proba egingo dute, eta hori guztiori uztartzea posible bada, horretan segituko dute.

GAUR, EGUBAKOITZA, ZINEKLUBA

Eguenetako ohiko zinekluba egubakoitzera pasatu dute. Gaur, 20:30ean, Karim Ainouz zuzendariaren *Madame Sata* emango dute, jatorrizko bertsoian eta azpitituekin. Film horretan Joao Francisco Dos Santos benetako istorioa kontatuko dute. Joao Brasilen bizi zen artista transformista bat zen, eta bizitza espetxean eta Rio de Janeiro bohemioarreen igaro zuen. Drama

kutsua dauka film horrek eta oso kritika onak jaso ditu.

Zapatuan eta astelehenean, berriz -domeka salbuespena izango da antzezlan bat antolatu dutelako-, Coen anaaien *Cruelidad intolerable* filma emango dute. AEBetako Coen anaiek ibilbide luzea daukate eta batzuen ustetan, film horretan euren ohiko ildotik zertxobait aldendu dira. Dena den, George Clooney eta Catherine Zeta-Jones aktore ederrak protagonista ditu, eta komeria horrek ere eman du zeresanik. Clooney dibortzioetan espezializatutako abokatu famatua da, eta Zeta-Jonesek mendekua egin gura dio. Halabeharrez, bien artean borroka piztuko da.

Cruelidad intolerable zapatuan -19:00etan eta 22:00etan- eta astelehenean -20:30ean- ikusi ahal izango duzue. Asteburuan lau euroren truke, eta astelehenean, ikuslearen egunean, hiru euroren truke. Asteburu horretan ez dute ume-ndako filmik emango.

Datorren egubakoitzean, urtarrilaren 23an, zineklubeko sailean, *Together* filma emango dute, 20:30ean. Film hori Chen Kaige zuzendariak egin du eta Txinako herri txiki baten bizi den gaztetxo baten istorioa kontatzen du. Gazte horrek biolina jotzeko talentu handia dauka. Mutikoa oso lotsatia eta sentikorra da, eta musika da sentimenduak adierazteko duen bidea.

LABUR

Oskar Aranak irabazi du Jokin Zaitegi lehiaketa

AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak aditzera eman duteenez, Oskar Arana arrasatearra da aurtengo Jokin Zaitegi lehiaketaren irabazlea. Oskar Aranak 4.200 euro jaso ditu John Maxwell Coetzee idazle hegoafrikarraren *Disgrace* eleberria ingelesetik euskaratzeko.

Hamazortzi lagunek hartu dute parte lehiaketan, horietatik bi ibarrekoak. Epaimahaia honako lagunek osatu dute: Patxi Ezkiaga, Aintzane Ibartzabal eta Iñaki Mendigurenek, hain zuzen.

Oskar Arana Aramaion jaio zen, baina Arrasatera etorri zen bizi izatera 7 urterekin. Orain dela hiru urtetik Gasteizen bizi da. Zuzenbidea ikasi zuen, baina orain dela lau urte itzulpengintzan lanean hasi zen. Halako lehiaketa baten parte hartu duen lehenengo aldia da, eta AEDko bazkidea ere bada.

Oskar Aranak *Disgrace* eleberria euskaratzeko 4.200 euroko beka jaso du, eta lan hori 2004ko irailaren 1erako izan beharko du bukatuta. Hori da lehiaketako saria, liburu hori euskaratzeko jasoko duen beka. Erdia orain, hasi aurretik, emango diote. Beste erdia, lana bukatzen duenean. Kutzak dirulaguntza handia eman du.

Elkarlanean argitaletxeak aterako du liburua, 2004ko Durangoko azokarako.

Okendoko ludotekan lehen urteurreneko jaia antolatu dute

Datorren egubakoitzean, urtarrilaren 23an, Txatxilipurdik Okendoko ludotekaren lehen urteurreneko jaia antolatuko du. 17:00etan izango da, eta, besteak beste, askaria izango dute eta hainbat ekintza egingo dituzte. Horrez gain, Txatxilipurdik aditzera eman du ludotekan bazkide egitea 20 euro kostatzen dela.

Domekan antzerkia antolatu dute gaztetxean

Domekan, urtarrilaren 18an, Gazte batzarrak antzerkia antolatu du gaztetxean. 18:30ean, Tearto antzerki taldeak *El feeling es así* ikuskizuna eskainiko du, eta doan izango da.

Joan den domekan ere antzezlan izan zuten, eta gaztetxea lepo bete zen Interrup-tus taldea ikusteko.



2003an, Zahar Berri antolatu zuen azkeneko ekintzak, talo ikastaroak, arrakasta handia izan zuen.

ZAHAR BERRI

EUSKARA/ Zahar Berri saiatzen da euskara ikasten dutenak euskalkira hurbiltzen

Eskolaz kanpoko ekintzak, Zahar Berriren eskutik

IKER BARANDIARAN

Zahar Berri euskaldun berriei laguntzen die ikasi duten euskara praktika dezaten, eta euskalkia uler dezaten. Urtean hainbat ekintza antolatzen ditu. Horien artean, herriko bi euskaltegiatako ikasleen arteko harremanak sendotzen ahalegintzen da.

Zahar Berri elkarteak urteak daramatza euskara ikasten dutenei laguntzen. Klean berba egiten dena ulertu eta euskalkiari hurbilpena egin dezaten gura du. Horretarako, hainbat ekintza antolatzen ditu, baina oraingoan bat nabarmenduko dugu.

Hilero euskaltégiko ekintzak antolatzen dituzte, ordubete edo ordu eta erdikoak. Egun berean, ekintza bera goizez eta arratsalde egiten dute. Ekintza horiek honako helburuak dituzte: herriko bi euskaltegiatako -Udal Euskaltegiko eta Erdu-AEK Euskaltegiko- ikasleak harremanetan

jartzea; eskola kanpoko ekintzak bultzatzea ere oso garrantzitsutzat dute; ekintza horietan entzutezko ulermena lantzea, hau da, irakasleez gain, beste batzuei ere euskaraz entzuten ohitzea; eta, posible bada, ekintza horiek ematen dituenak Arrasateko euskararen berba egitea. Horrela, kalean egiten den euskara ulertzen hasiko dira.

EKINTZA MORDOA EGIN DITUZTE

Helburu horiek betetzeko asmoz, urtez urte hainbat ekintza antolatu izan dituzte. Esaterako, joan den urtean, diapositiba emanaldia egin zuten barnetegien gaineko informazioa azaltzeko; loreak zaintzearen gaineko ikastaroa eman zuten; Industria Erakusketara bisita egin zuten; ipuin kontaketa egin zituzten; taloak egiten ikasi zuten; eta sexualitatearen gaineko ikastaroak egin zituzten, besteak beste.

Ekintza horiek AEDko txokoan egiten dituzte, eta ikasleek eskolaz kanpoko ekintzak oso

gustura hartzen dituzte. Horien artean arrakasta handien izan dutenak izan dira lorezaintza eta talo ikastaroak.

Lorezaintza ikastaroak parte-hartze oso handia izan zuen, eta talo ikastaroan ere ikasleak oso gustura ibili ziren. Irakasleak oinarrizko lau azalpen eman zituen, eta gero, banaka taloak egiten hasi ziren. AEDko txokoa erre eta gero jan egin zituzten. Talo ikastaroarekin urtea bukatu zuten.

Dena den, Zahar Berriko euskaltegiko ekintzek ikasturte osoa irauten dute. Hau da, urrian hasten dira eta ekainera arte irauten dute.

Dagoeneko hasi dira 2004ko egitaraua antolatzen. Iker eta Eneko Pouk euren ibilaldien gainean egingo dute berba eta diapositibak emango dituzte. Horrez gain, Aratusteetan mozorroekin edo makillajearekin lotutako ikastaroren bat antolatzeko asmoa dute; seguruenik loreen gaineko zerbait antolatuko dute.

Gazte Kontseiluak Gazte Astea antolatuko du hil bukaeran

I.B.

Orain dela hilabete batzuk, herriko hainbat gazte elkarteek Gazte Kontseilua sortu zuten. Ekintza bateratuak egiteko asmoa dute, eta hilabete bukaeran Gazte Astea antolatu dute.

2003an, herriko hainbat gazte elkarteek Gazte Kontseilua eratu zuten. Talde horren helburuak dira, besteak beste, herriko gazteei beste aukera batzuk eskaintzea; gazte taldeek egiten duten lana aditzera ematea; eta herriko taldeen arteko harremanak sendotzea.

Gutxi gorabehera hilean behin elkartzen dira eta inoiz Udaleko Gazte Saileko ordezkariak ere hartu dute parte. Besteak beste, honako taldeek osatzen dute kontseilua: AED Gazteak, Txatxilipurdi, AGAKO, Giza Izpi Alai eta Besaide Gazteak. Iaz, kontseilua irudikatuko duen logotipo lehiaketa antolatu zuten.

GAZTE KONTSEILUA EZAGUTZERA EMAN

Gazte Kontseiluaren lehenetarikoko ekintza honako hau izango da, urtarrilaren bukaeran hasiko den Gazte Astea antolatzea. Urtarrilaren 30etik (egubakoitza) otsailaren 6ra arte hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte.

Astea hasteko, urtarrilaren 30ean kontzertua antolatu dute Musakolako kiroldegian. Fermin Muguruza, Anger eta Iraina taldeek joko dute. Zapatuan, ostera, tortilla lehiaketa, bertso triki poteoa eta tortilla dastatzea antolatu dituzte. Lehiaketarako izenematea urtarrilaren 26a bukatuko da. Jo AEDra edo Txatxilipurdira.

Domekan, ume eta helduen dako puzgarriak eta tailerrak antolatu dituzte. Eta kale-antzerkia ere izango da.

Astelehenean, grafiti erakustaldia egingo dute. Martitzenean, makillaje artistikoko erakustaldia eta argazki erakusteta egingo dituzte. Eguaztenean, herriko umeek eta gazteek panelak margotuko dituzte. Eguenean, Oihulari Klown taldeak *Rekoloclon* ikuskizuna eskainiko du, drogen kontsumoaren gaineko gogoeta egiteko.

Egubakoitzean, asteari bukaera emateko, panelen erakusteta, txistorra-jana eta perkusio bandarekin kalejira egingo dute.

Ekintza horiek herriko hainbat gunetan egingo dituzte: Herriko Plazan, Ferrixalekuan, Seber Altube plazan, Monterron jauregian, auzoetan, gaztetxean eta Musakolako kiroldegian, besteak beste. A zer-nolako ekintza sorta antolatu duten!



METAK

Besteak beste, Fermin Muguruzak kontzertua egingo du kiroldegian.

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Monte
taberna

Maialako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

BEHEKODENDATIK

Carlos Ruiz

KANPAZAR-FIAT AUTOAK

XABIER URZELAI

Carlos gazte-gaztetatik hasi zan automobillekin lanien: "15 urtekin hasi nitzen lanien. Inguruko mekaniko gehixenak hasi gitzen leku berien, Mekan". Gero, sei bazkiden artien Kanpazar taillerra sortu euen, 1980xen. 1984an hasi zien Fiatekin lanien, eta gaur arte.

Ze eskaketan dutzezu 2004ei?

Osasune eukittie eta juen dan urtie moduko ona izetie.

Eta, juen barri dan urtiei ze faltau izen jako?

Lan apur bat gehixau.

Ze falta jako Mondragueri?

Aparkaleku gehixau.

Eta, ze dauko ona?

Danondako lana dauela, eta jentiek lan egitteko gogue daukola.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Titanic / Viven / Beatles.

Nora juengo zitzake gustora?

Kostaldeko herritxo batera, adibidez.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Plantxetie.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

Nauen moduen ondo nau.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Ondokuek lana eukittie.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Herrixen trafikue arinketako lanak egin diela: Markuleteko tunela, adibidez.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Ez. Herrixen bertan.

Zerk arduraketan zau?

Momentu honetan ez dauket ardura haundirik.

Eta, zerk poztu?


Ondo saltzen dogule jakittiek.

Zein da gehixen saltzen dozu modelue?

Fiat Stilo.

Fiat eta Alfa Romeo markekin egitten dozue lan. Ze eskeintetan daue horreik markok?

Teknologia aldetik oso aurre-



XABIER URZELAI

"Alfa Romeok ez dauko izen onik, baiñe egun, oso automobil ona da; kalidade haundikue"

ratute egotiez batera, seguridade haundixe eta erosotasune. Azken baten, produkto ona.

Baiñe, ze azpimarratuko zeuke?

Marka diferentiek die. Fiat markie prezio aldetik oso ondo dau, marka kompetentie da. Alfa Romeo markie gutxiau saltzen da, eskusibue dalako. Oso automobil onak die, diseño eskusibuekin eta oso emaitza onak emuten daue, baiñe kalidade ordaindu egin biher da. Gaiñera, marka horri izen on apur bat falta jako.

Zergatik?

Lehengo Alfa Romeuek ez euelako emaitza onik emun. Ez zien automobil txarrak, baiñe mekani-

"Neu Fiat Stilo bat erosiko neuke. Oso mekanika ona dauko, motor ona eta kontsumo bajue"

ka konplikaue eukien. Hamen ez geuken mekanika hori konponketako medixorik, eta izen txarra hartu euen. Jentiek ondiokan be hori dauko buruan, eta oingo automobilak ezagutu barik egitten daue berba.

Esposiziñue San Andresen eta taillerra Kanpazarren. Nun gustorau?

Neu taillerrien hasi nitzen lanien, eta taillerrien ibiltten naz gustorau.

Zeuk ze automobil erosiko zeuke?

Oin? Fiat Stilo bat. Oso mekanika ona dauko, motor ona eta kontsumo bajue. Hiru ate, bost ate, familiarra... Aukera asko dauz.

NIREBIDAIAHURA/ Iker Ullibarriarana

Maroko / 2003ko abuztuan

Iker neskalagunarekin, Ainhoarekin, joan zen Marokora, udan. Lehenago ere egonda zegoen Marokon, baina lagunekin. "Lehen ez nuen esango, baina orain argi daukat horrelako lurralde batera lagunekin edo neskalagunarekin joatea ez dela berdin. Lagunekin gauza askotaz ez zara ohartzen, lasaiago zabilta". Ikerrek eta Ainhoak hamar egun egin zituzten Marokon, eta Espainiara itzuli zirenean, Malagan bi egun egin zituzten: "Egun batzuk lasai igarotzeko geratu ginen Malagan, deskantsatzeko". Arrasateko bikotea oporretan joan zen Afrika aldera, baina gelditu barik ibili ziren. "Guztira zortzi mila kilometro egin genituen autoan, Mauritaniaraino jaitsi ginen-eta".

Ikerren esanetan, bidaia sekulako esperientzia izan zen: "Bizipen txarren bat edo beste izan genuen, baina hori ere bizi egin behar da; horrelakoetan asko ikasten da". Ikerrek eta Ainhoak abuztuaren 10ean hasi zuten bidaia. Penintsula zeharkatu, eta Marokon sartu ziren. Hurrengo bi egunak Shifshawnen egin zituzten. Han, besteak beste, haxixa zelan egiten duten ikusi zuten. Handik kostalderako bidea hartu zuten, Asilahra, hain zuzen ere. Kostaldean deskantsatzeko aukera izan zuten: "Emakumeek gorputz osoa estalita eramaten dute, baina kostaldean ez dira horren zorrotzak, turismo handiagoga dago-eta. Turismoa dagoen leketan Europak duen eragina igartzen da".

Kostaldean hiru egun egin zituzten, eta gero, bikoteak hiribururako bidea hartu zuen: Rabatera joan ziren. Eta egun haietan, kontatzeko moduko hainbat bizipen izan zituzten, onak eta ez hain onak. Pasadizo horiek, baina, datoren asterako utziko ditugu.



"Marokon ez dago zertan beldurtu; hori bai, errespetuz ibili behar da"

"Merezi du Marokora joatea, erabat ezberdina da-eta"

XABIER URZELAI



Marokon ezagututako lagun baten etxe ikusgarria.



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

San Andres auzoa Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

ESKORIATZA
Tfno 714845
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ZAHARRAREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Herriko erretiratu askok ortuan lan egiteko zaletasun handia daukate.

Udalak erretiratuendako ortuak ipiniko ditu Garagartza auzoan

IKER BARANDIARAN

Badirudi Udalaren aspaldiko asmo bat betetzeko bidean dela. Orain dela lau bat urte, Udaleko Ingurumen Sailak erretiratuendako ortuak ipintzeko asmoa azaldu zuen. Urteotan, lursaila eskuratzeko ahaleginetan ibili dira, eta azkenean, Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresarekin trukea adostu dute. Enpresak Udaleko lurretan aparkalekuak egin zituen, eta orain Fagorrek, ordainean, Udalari 8.000 metro koadroko lursaila utzi dio.

Udalak enpresa bati esleitu dio proiektua. 10.000 euroko aurrekontua du eta IHOBEn laguntza izango du. Urrirako izenematea zabaltzea espero dute. Horrez gainera, abendurako ortuak erabiltzeko moduan egongo direla uste dute.

3.000 METRO KOADRO ERABILGARRI

Lursailak 8.000 metro koadro ditu, baina Udaleko Ingurumen Saileko arduradun Joseba Ugaldek azpimarratutakoaren arabera,

3.000 metro koadro bakarrik dira erabilgarri. Izan ere, lursail hori oso aldapatsua da, eta ortuen artean txabola bat materiala gordezko eta arropaz aldatzeko eta bideak egin beharko dituzte. Ugaldek aurreratutakoaren arabera, baliteke 150 bat partzela ipintzea, baina oraindik, ikerketa egin

Kanpoko eredia arrasateartu

Joseba Ugaldek aspaldi jaso zuen ortu horien berri, liburu baten. Bartzelonako Gracia auzoan abian ipini zuten. Gainera, eskoletako umeak erretiratuengana eramaten dituzte, ortuan zer lantzen duten jakiteko. Gaztetxoek ikasteaz gain, erretiratuena eta gaztetxoaren arteko harremanak sendotzen dituzte. Hemen ere saiakera egingo dute.

artean, ezin du kopuru hori ziurtatu. Dena dela, Ugaldek argi dauka interesa badagoela. Izan ere, dagoeneko erretiratu askok deitu dute proiektu horren berri jakiteko.

Ortu horiek derrigorrez ekologikoak izan beharko dute, eta erabiltzaileek urtean 0,5 euro ordaindu beharko dituzte. Horrez gain, Udala aztertzen dabil urbanoa Garagartzaraino joatea, erretiratu horiek erabil dezaten.

ARAUDIZ KANPOKO ORTUAK

Arrasaten ortu asko daude, baina Ugaldek azaldutakoaren arabera, horietako asko araudiz kanpo daude. "Makatzeko ortuak araudiaren barruan daude, baina Santa Teresako eta Santa Marinako hainbat ortu ez. Horiei gonbitea egingo diegu Garagartzara joan daitezkeen", azaldu zuen Joseba Ugaldek.

Horrez gainera, Arrasateko Udalak aztertzen dihardu herriko beste zona batzuetan ere -San Andresen, Zigorrolan, Monte Hidalgon (Makatzena)...- ortuak ipintzeko aukera.

LABUR

Iturbide egoitza handitu egin gura dute, eta, seguruenik, Abaroa lekuz aldatuko dute

Gizarte Zerbitzuetako arduradun Joxe Etxeberriak Arrasate Irratian egindako elkarrizketan azaldu zuen Iturbide egoitzak gero eta premia handiagoak dituela. Egoitzaren gaineko ikerketa egiten dabil, eta gero eta egoiliar kopuru handiagoa dute. Horrek zerbitzu hobea ematea eskatzen du. Udala aztertzen dabil Abaroa elkartera lekuz aldatzea, baina oraindik ez du ezer erabaki.

Eguenean, Uribarriko erretiratuena elkarteak omenaldia egingo die 80 urtetik gorakoei

Eguenean, urtarrilaren 22an, Uribarriko erretiratuena elkarteak omenaldia egingo die 80 urte edo gehiago dituzten bazkideei. Bazkaria egingo dute, eta opariak banatuko dituzte. Horrez gainera, gizon eta emakume zaharrenei omenaldi berezia egingo diete.

Omenaldira joan gura dutenek izena eman behar dute domeka baino lehen -hilak 18- Uribarriko elkartearen.



Iturbide egoitzan opariak jaso zituzten

Urtero moduan, Ekialdeko erregeek Iturbide egoitza bisitatu zuten. Zaldiak sarreran utzi zituzten eta Iturbideko egoiliarrengana jo zuten, opari askorekin. Iturbideko areto nagusian jende mordo zain zuten. Erregeek egoiliarrei eta ume askori eman zizkieten opariak.

Esan dugun moduan, erregeekin batera ume ugari egon ziren, eta horiek Gabonetako kantuak eskaini zizkieten aretoan bildutako. Iturbideko egoiliarrek oso gustura hartu zituzten bisita, opariak eta kantuak. /A.B.

PUB HAIZEA
arrasate

Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



ARAMAIO
Iñigo Molero
Urtarrilaren 2an, urtebetetzea. Zorionak! Altuna familiaren partetik.



ARAMAIO
Imili Zillaurren
Urtarrilaren 3an, urtebetetzea. Zorionak! Altuna familiaren partetik.



ARETXABAETA
Miren Murillo
Urtarrilaren 8an, urtebetetzea. Zorionak! Mikel eta etxeokak.



ARRASATE
Maider Zubillaga
Urtarrilaren 7an, 6 urte. Zorionak! Ama, aita eta Alazne.



ARRASATE
Oier Bujanda
Urtarrilaren 13an, 1 urte. Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Manuel Arana
Urtarrilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, aita! Etxeko partetik.



ARRASATE
Iker Hernandez
Urtarrilaren 7an, 8 urte. Zorionak eta patxo handibat! Mara eta etxeokak.



ARRASATE
Anais Madinabeitia
Urtarrilaren 7an, 15 urte. Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Ainhoa Guridi
Abenduaren 30ean, 8 urte. Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Maitane Iria
Urtarrilaren 3an, 5 urte. Zorionak! Aitaxo eta amaxo.



ARRASATE
Ramon Ramila
Urtarrilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Goienako langileak.



ARAMAIO
Axun Errasti
Urtarrilaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Itziarren eta Uxueren partetik.



ARAMAIO
Maite Errasti
Urtarrilaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Itziarren eta Uxueren partetik.



ARRASATE
Irati Larrañaga
Urtarrilaren 18an, 1 urte. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Odei Bouzon
Urtarrilaren 16an, 5 urte. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Iker Alvarez
Urtarrilaren 10ean, 2 urte. Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Jone Rodriguez
Urtarrilaren 15ean, 7 urte. Zorionak! Gurasoen eta Nagoreren partetik.



ARRASATE
Miren Iturbe
Urtarrilaren 16an, 1 urte. Zorionak! Gurasoen eta Estiren partetik.



ARRASATE
Ion Gardoki
Urtarrilaren 15ean, 27 urte. Zorionak! TMT.



ARRASATE
Angel Balzategi
Urtarrilaren 13an, 66 urte. Zorionak! Etxeokak, Felixu eta Luis Mari.



ARRASATE
Juan Luis Merino
Urtarrilaren 14an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Jose Salaberri
Urtarrilaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Irene Salaberri
Urtarrilaren 20an, 2 urte. Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Leire Badiola
Urtarrilaren 17an, 6 urte. Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Igor Fernandez
Urtarrilaren 11n, 17 urte. Zorionak! Goienako langileak.



ESKORIATZA
Aitziber Aranburuzabala
Urtarrilaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Laneokak.



ARRASATE
Ibon Cordobilla
Urtarrilaren 14an, 22 urte. Zorionak, Kibon! Espi, Richi, Galan eta Sencio.



ARRASATE
Jonathan Carrasco
Urtarrilaren 16an, 19 urte. Zorionak, Huevarras! Lagunen partetik.



ARRASATE
Eider Magunazelaia
Urtarrilaren 18an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Familiaren partetik.



ARRASATE
Oihana Corral
Urtarrilaren 16an, 24 urte. Zorionak, maitasunez! Zure lagunak.



ARRASATE
Markel Hernandez
Urtarrilaren 16an, 12 urte. Zorionak! Gaizkaren eta Garaziren partetik.



ARRASATE
Sebas Gorosabel
Urtarrilaren 20an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko partetik.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



'ARRASATE, KOOPERATIBA BATEN 'IBILBIDEA' LIBURUA

Zeren edo nongo kirol instalazioak dira argazkian ikusten dituzuenak?
Arrastoa: izkinako igerilekura gizonezkoak bakarrik joan ahal ziren.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Fontaneda Tostaduca gailetak
700g-ko kaxa

1€ 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EIDER YARZArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Eider!
Galderen erantzun zuzena:
Zuhaitz Eguna.

ARRASATEKO HISTORIA

Otalora Lizentziadunaren gaineko zenbait xehetasun

'MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

Ferixalekua dagoen inguruko kale nagusia da. Maalako Errabalean hasten da eta San Frantzisko kalean bukatu. Migel Ruiz de Otalora lizentziadunarengatik ipini zioten izena.

Migel Ruiz de Otalora lizentziadun Arrasaten jaio zen, eta Madrilen hil zen 1575ean, Indietako Kontseiluko presidente zela. Anaia Santxo Lopez moduan, legelaria izan zen; hala, besteak beste, Felipe II.aren aholkulari lanak bete zituen.

Aipagarria da, esate baterako, 1563an Iruñeko Errege Kontseiluko erregeordea izan zela arrasatear legelaria, eta horren ondorioz Nafarroako erregeorde, 1563tik 1564ra arte aurreneko aldiz; eta 1564ko otsailetik 1565eko maiatzera arte bigarren aldiz. Hain zuzen ere, bigarren aldi hartan, Frantziara bidean zihoan Isabel erreginari harrera egin zion Otalora lizentziadunak.

Eta, horrez guztiaz gainera, Mexikoko presidente ere izan zen Otalora lizentziaduna.

Besteak beste, Felipe II.aren aholkulari izan zen, bai eta Nafarroako erregeorde ere

Amandre Santa Inesen erlikiak amesgaiztoak uxatzeko direla uste izan da

Hil baino apur bat lehenago gortetik etxera itzuli zenean, 1574an, probintziak mandataria bat bidali zuen Otalorari ongietorria egiteko, probintziak harengandik jasotako zerbitzuengatik esker ona erakusteko.

Migel Ruiz de Otalora lizentziadunaren familiari aipamena eginez, besteak beste esan beharra dago Ines de



ARTXIBOA

Amandre Santa Inesen aita izan zen Migel Ruiz de Otalora lizentziaduna.

Otaloraren aita izan zela. Ines de Otalora Felipe II.aren errege etxeke Rodrigo de Okarizekin ezkondu zen. Valladoliden hil zen, baina Arrasaten lurperatu zuten, parrokiako San Sebas-

tianen kaperan, gaur egun ponte dagoen lekuan. Askori ezaguna egingo zaizue; izan ere, haren gorpu momifikatua jendaurrean egon zen 1946ra arte. Hain zuzen, urte hartan

korupera eraman zuten, horma-hilobi batera. Amandre Santa Ines esaten diote gehienek, eta ustearen arabera, haren erlikiak gaueko amesgaiztoen sendabide dira.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko urtarrilaren 16a / 92. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Plastikoak batzeko edukiontzia ipiniko ditu laster Udalak

UBANE MADERA

Udaleko Zerbitzu Saileko buru Andres Osinaga zinegotziak jakinarazi digunez, laster edukiontzi horiak ipiniko dituzte herrian. Plastikoak batzeko ontziak dira hori kolorekoak. Ibarraz gain, auzo guztietan ipiniko dituzte edukiontziak, bakoitzean bana.

Oraingo astean, postal berezi bat bidali du Aramaioko Udalak herritarren etxebizitzetara. Edukiontzi horien gaineko postala da. Izan ere, Udalak kanpaina berezia abiarazi du plastikoak batzeko edukiontzien gainean. Hala, kanpaina horren barruan, 15 egun barru, edukiontzi txiki bana emango du Udalak Aramaioko etxe bakoitzeko. Plastikoak batzen hasteko edukiontzia da. Izan ere, Udalak aurrez ikusi du hil honen amaieran hasiko dela plastikoak batzen, gero birziklaturaz eramateko.

Oraindik xehetasun guztiak erabaki barik daude, baina seguru aski Ibarren lau edukiontzi hori ipiniko dituzte, eta auzoetan bana. Espero dute 15 bat egunetan ontziak beteko direla; hortaz, hamabostean behin hustuko



U.M. laz ipini gura zituzten edukiontziak, baina ez zuten aurrekonturik.

dituzte. Batutakoa Gasteizera eramango dute, Jungizen dagoen instalazio batera. Edozelan ere, edukiontziak erabili ahala zehaztuko dituzte erabiltzeko moduak.

OLIOAK BATZEKO EKIMENA

Bestalde, birziklapenarekin lotutako kontuekin segituz, Andres Osinagak jakinarazi digu oraingo astean hasi direla etxeko olio

batzeko erabiliko duten txabola konpontzen. Elosu enpresak egingo ditu lanok. Eta esandakoaren arabera, nahiko laster bukatuko dituzte.

Hori bai, lanak bukatu ostean, olio batzeko ontzi egokiak aukeratu beharko dituzte, herritarrek edozein momentutan erabili ahal izatekoak... Edozelan ere, asmoa da laster hastea olio batzen.



Espainiako gerrako kaskoa Zabolan

Jorge Errasti barajuendarrak 36ko gerrako kaskoa aurkitu du Zabola inguruko basoan. Hark kontatu digunez, ehizean zebilela, kazola bat aurkitu zuen erreka bazterrean; baina, kazola hartu zuenean, kaskoa zela ikusi zuen; Arangiotik hasi eta Asentzioko, Kurtzetako, Tellamendiko eta inguruko mendi-gainetan egon ziren trintxeren lekukoa. Auzokideek eskatuta Barajunera ekarri zuen gerrako erlikia, eta han dago, ondo gordeta.

LABUR

Urte berriko aurreneko osoko bilkura egingo dute datorren eguaztenean

Eguaztenean 18:00etan hasiko da udalbatzarra. Besteak beste, honako gai hauek aztertuko dituzte zinegotziek: herri barruan egiten diren lan handien kartelak euskaratzea eta hori zelan egin; Azkoagako hilerriaren gaineko eskaera; musikarekin lotutako dirulaguntza eskaerak; eta Oletako lanen bigarren zatia.

Bihar Arabako Taldekako Bertsolari Txapelketako finala jokatu dute herrikoek

Joan den asteburuan Trebiño aldean ibili eta gero, bihar, zapatua, beste ekinaldi bat egin beharko dute Aramaioko bertso-eskolarakoek. Izan ere, Arabako taldekako txapelketako finala jokatu dute Agurainen. 14:00etan hasiko da txapelketa, Aguraingo Zertu jatetxean. Ea, bada, etxekoek zorzea duten!

Txarribodarako erositako txerriak hanka egin zueneko istorio laburra

Kontatu digute zela Zabolako Arritzeko Antoniok txerria erosi zuen Artzen. Txarribodarakoa. Hala, karroan sartu eta etxera eraman zuen. Baina etxera iristean... txerririk ez! Eskerrak hantxerrik gurtzira Artzekoek deitu ziotela esanez txerria harrapatu zutela; Txarribodarik nahi ez, eta hanka egiten ahalegindu zen animalia gaixoa.

Zenbait dirulaguntza eskatzeko epea zabaldu berri dute

U.M.

Udalak jakinarazi digu zenbait dirulaguntza eskatzeko epea zabalik dagoela. Hain zuzen ere, elkarte edo fundazioendako, erakunde publikoendako eta gizarte zerbitzuen inguruan jarduten dutenentzako da deialdia. Batzuek urtarrilaren 31ra arteko epea dute; besteek otsailaren 15era artekoa.

Hain zuzen ere, gizarte zerbitzuekin lotutako jarduerak izango dute urtarrilaren 31ra arteko epea; eta gainerakoek otsailaren 15era artekoa. Edozelan ere, guztiak Gizarte Ongizaterako Foru Eraikinean

egin beharko dituzte eskaerak, Gasteizko Diputazio kalean.

ELKARTE EDO FUNDAZIOAK

Irabazi asmo bariko elkarte edo fundazioek eska ditzakete dirulaguntzok, hiru zereginetarako: gizarte zerbitzuen oinarriko ekipamenduak gaitzeko edo berritzeko; egokitzeko, zaintzeko edo hobetzeko; eta ekipamenduak edo altzariak erosteko.

ERAKUNDE PUBLIKOAK

Erakunde publikoen kasuan, laguntza eskatzeko derrigorrezkoa dute zentroaren edo zerbitzuaren titularitatea edo kudea-

keta euren izatea. Hala izanda, dirulaguntza lau zereginetarako eska ditzakete: zentroa gaitzeko edo berritzeko; egokitzeko, zaintzeko edo hobetzeko; ekipamenduak edo altzariak erosteko; eta auzolanerako materiala erosteko.

GIZARTE ZERBITZUAK

Eta gizarte zerbitzuei dagokienez, prebentzio edo gizarteratze lanak egiten dituztenek edo gizarte laguntzak ematen dituztenek eska ditzakete laguntzok; euren programak eta jarduerak aurrera eramateko.

Informazio gehiago behar izanez gero, udaletxean eska daiteke.

Abiarazi dute pentsiodunendako 2004ko bainuetxeetako programa

UBANE MADERA

Urtarrilaren 31ra arteko epea dute pentsiodunek bainuetxeen programan lekua hartzeko, otsailetik abuztura arteko txandarako. Bestela, maiatzaren 16ra arteko astia dute.

IMERSOK abiarazi du 2004ko bainuetxeetako programa. Hala, Andaluzian hasi eta Euskal Herriraino 14 erkidegotako bainuetxeak dituzte aukeran pentsiodunek, 15 egun pasatzeko.

Ohi bezala, bi txandaren artean aukeratu beharko dute: otsailetik abuztura eta irailetik abendura. Lehenengo txandan lekua hartzeko, urtarrilaren 31 baino lehen egin beharko dute eskaera; eta bigarreneko, maiatzaren 16a baino lehen.

NON EGIN ESKAERAK

Posta arruntez aurkez daitezke eskaerak, edo bestela norberak eraman ditzake honako lekuren batera: hirugarren adineko zentroetara edo interesdunak gertuen duen IMERSOren zuzen-



Erretiratuek, alargunek edo ezintasunen bat dutenek eska dezakete lekua.

daritza probintzialera; IMERSOren zerbitzuak ematen dituzten erakundeetara edo IMERSOren zerbitzu orokorretara.

Behin aurkezteko epeak bukatzen direnean, hartutako eskae-

ra guztiak aztertu egingo dituzte honako baremoen arabera: bainuetxeetako tratamenduak jasotzeko beharra, eskatzaileen egoera ekonomikoa eta adina eta aurreko urteren batean halako

ekimenetan parte hartu ez izana. Edozelan ere, eskatzaileei etxera bidaliko diete hartutako erabakia.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Honako baldintzak bete beharko dira bainuetxeen programan parte hartzeko: gizarte-segurantzako pentsioduna izatea erretiroarengatik, baliaezintasun batengatik edo alarguntasunarengatik; bizikidetzari kalte egingo dion buruko gaixotasunik edo gaixotasun kutsakorrik ez izatea; eguneko kotasunean nor bere kabuz baliatu ahal izatea; bainuetxeetako tratamenduen beharra izatea eta haiekiko kontraindikaziorik ez izatea eta eskaera egiteko baldintza guztiak betetzea.

BAINUETXEEN ESKAINTZA

Bainuetxeen programak zera eskainiko du: 15 eguneko mantenu osoa eta oinarritzko tratamenduak (osasun azterketa eta jarraipena eta norberak behar duen tratamendua) eta aseguruak.

Horren gaineko informazio zabalagoa behar izanez gero, Aramaio udaltxean eska daiteke.

BOTEPRONTOAN/ Eneritz Mondragon · Udaletxean praktiketan

“Gazte lokalen kasuan, uste dut burugogorkeria apur bat dagoela alde bien partetik”

Zuetako askori ezagun egingo zaizue Eneritz Mondragon, azkenaldian udaletxean dabil-eta lanean. Praktikak egiten dabil joan den azaroaz geroztik Goikolaba baserriko gaztea. Otsailera arte izango da udaletxeeko harreraren:

Orain artekoa ikusita, zer pentsatu zaizu udaletxeeko lana? Interesgarria. Herriko mugimendu guztiak ikusten dituzu, herritarrei lagundu egiten diezu...

Lehenagotik ezagutzen zenuen lan hori?

Bai. Unibertsitatean hasi nintzenean, Judithi galdetu nion ea bazegoen lanik niretako. Hala, *Herrietan* aldizkaria banatzeko deitu zidaten aurreneko aldiz; gero, zigilatzekeo... **Gertutik ikusita zelako harremana dago herritarren eta Udalaren artean?**

Dezente ona. Jendea etortzen da, galdetzen du beldur barik, telefonoz ere deitzen dute... Batzuek aurpegi gogorragoa dute eta gehiago aurpegiratzen dituzte txarto egindakoak; baina bestela, arazo barik. **Egokitu zaizun gertaera bitxi...** Gaur bertan pasatu zaidana. Hiru perutar etorri dira, gizon



“Interesgarria da udaletxeeko lana; herriko mugimendua ikusten dut”

bi eta emakume bat. Lan bila etorri dira. Nik ez nekien zer erantzun eta Judithengana bidali ditut. Eta aurreko batean beste mutil bat etorri zen galdetzen ea Aramaion bazen alokatzeko etxebizitzarik.

Izan ere, geroago eta jende gehiago dator Aramaiora bizi izatera. Igartzen duzue hori? Kanean bai. Mugimendu handiagoa dago.

Hortaz, kanpotik datozenak ibiltzen dira herrian...

Ez asko. Umeak dituztenak bai. Haiek gehienbat parkean egoten dira umeekin; baina amerik ez badute, lotara bakarrik etortzen dira.

Ona da jendea etortzea? Nik baietz uste dut. **Praktiketan ibili beharrean alkate zango bazina eta ez bazenu mugarik izango, zer egingo zenuke Aramaion?**

“Kanpotik etortzen diren gehienak, amerik ez badute, lotara bakarrik etortzen dira”

Igerilekua, txikitatik daukadan nahia da. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zait gazte kontsideratzen garen guztiondako lekua edukitzea. Gure sasoiari ordu mordo eman genuen udaletxeeko arkupean.

Gazte lokalak aipatuz, zelan ikusten duzu arazo hori?

Orain arte izandako liskarren ondorioz, bai gazteak eta bai Udalekoak nahiko burugogor daude euren iritziekin. Nire ustez, normala da, hainbat aurreiritzi dituztelako gertatutakoarengatik. Baina kontuan hartu behar da lokal eroso bat dagoela hutsik eta diru nahiko inbertitu dutela. Horregatik Udalekoei eskatuko nieke koadrila handi horren adinaren muga handitzea eta baita eurekin fidatzea ere. Eta gazteei inplikazioa eskatuko nieke hainbat ekintza antolatzen (jaiak, irteerak, gazte mugimenduak...). Eta lokalera berriz sartzen badira euren artean antolatzea lokaleko garbiketarak eta konponketarak egiteko. **Udaletxeeko lanera bueltatuz, zer eskatuko zenieke herritarrei?**

Pazientzia apur bat. Gauzak bizkorregi nahi dituzte batzuetan, eta ez dute ikusten atzetik egin behar den lan guztia.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15*	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45*	19:30
19:00	19:15	
21:00	21:25	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAKOEN EMAITZAK

Joan den asteburuan, mutilen taldeak bakarrik jokatu zuen partidua, nesken taldeari atseden hartzea egokitu zitzaion-eta. Hala, emaitza polita ekarri zuten etxera; izan ere, 8-5 irabazi zioten Kanpetzuko Kostalerari. Bihar, zapatua, mutilek etxean jokatu dute, 11:00etan, Diocesanas Nieves Cano taldearen kontra. Eta neskek Aldaben izango dute partidua, 12:30ean, Olabideren kontra.

ZINEMA

Oraingo domekan *The Dornberrys* filma emango dute.

TXOTX ITURRIETAN

Iturrieta sagardotegikoek atzo, eguena, zabaldu zuten aurtengo sagardo denboraldia. 20:00etan egin zuten txotx, oraingo honetan Toti Martinez de Lezea idazle arabarraren eskutik. Horrez gainera, giroa berotzen herriko trikitilariak, txalapartariak eta bertsolariak izan ziren, baita zenbait herritar ere gonbidatuen artean.

ERRETRATUZAHARRA

Diktadura
garaiko
udalbatza

Primo de Riveraren garaia izango dugu berbagai oraingo honetan argazki zaharraren tartean.

Primo de Rivera jeneralak estatu kolpea eman zuen 1923ko abuztuaren 13an, eta 1930era arte iraun zuen diktadura ezarri zuen. 1923ko irailaren 30ean udal kargu guztiak kendu zituzten, eta Arrasateko Udalaren buruzagitza Guardia Zibilaren postuko komandante Ceferino Diez Francok hartu zuen, urriaren 2ra arte. Egun hartan, beste gobernu talde bat izendatu zuten, goitik. Hain zuzen ere, argazkian agertzen den gizon talde hori. Guztien izenak jakin arren, banan-banan zein den zein esatea zaila da; honako hauek ezagutzen ditugu: ezkerretik hasita, Pedro Izagirre (abadea), Alejandro Alesparru, Emeterio Erguin (zinegotzia) eta Frantzisko Pildain (zinegotzia); hurrengo bostak ezezagunak dira; Espainiako banderaren ezkerrean dagoena Jeronimo Mendikute zinegotzia da eta eskuinaldean dagoena (biboteduna) Laureano



Arana aguazila. Haren ondoren abadeilara dator: Frantzisko Imaz, Prudentzio Balerdi, Jose Joakin Arin, Hilario Lasaga eta Lorentzo Orue. Eta azken bi abadeen artean dagoen gizona Prudentzio Iraeta idazkaria da.

Horiekin batera beste honako hauek izan ziren udalbatza: Ignazio Mondra-

gon (zinegotzia), Melkiades Jauregibarría (alkatea), Julian Urrategi (zinegotzia) eta Simon Arrieta (aguazila). Taldearen aurreneko erabakia elizkizun batean parte hartzea izan zen, Jaungoikoari eskerrak emateko eta aberriaren onura eskatzeko. Edozelan ere, talde hark urtebete egin zuen


udalean; 1924ko martxoan beste udalbatza bat izendatu zuten, Dagoberto Resusta alkate zela.

Argazkia eta informazioa: Arrasate 1936, belaunaldi etena liburua
Urtea: 1923

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Pedro
Biteriren
oroitarria

Argazkian azaltzen den oroitarria Pedro de Biteriri eskainitakoa da. Iturriotz kaleko etxe baten jaio zen Pedro de Biteri Arana, 1833an. Filantropo ezagun horrek hainbat eskola eraiki zituen Gipuzkoan. Lehena Arrasaten eraiki zuen, 1902an. Oroitarri hori Arrasateko herriak eskaini zion, 1911n. Haren izena zeraman eskolaren parean jarri zuten oroitarria.



≈ 1940

Biteren oroitarria Pique, Molina eta Riu eskulturagileek egin zuten. Oroitarriak 60 urte egin zituen Biteri eskolaren parean.



2004

Banco de Vizcayako dorrea eta inguruko etxeak egin zituztenean, Biteren oroitarria Grupo San Juanera aldatu zuten, 1970ean.



ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

**BASATI
TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711768

JOSE LUIS AMERIGO/NOTARIOA

“NOTARIOTZA BERRIA ZERRAJERAN DAGO, ZERBITZU HOBEA ESKAINTZEKO”

Urte berriarekin Arrasatek notariotza berria estreinatu du. Urte askoan Iturriotzen egon eta gero, hemendik aurrera mondragoetarrek Zerrajerako etxeetara joan beharko dute. Egoitza berriaren gainean berba egiteko Jose Luis Amerigorekin izan gara, Mondragoeko notarioetako batekin.

Zer dela-eta aldatu duzue lekuz notariotza?


Azken urteotan hiru notario gabilta Arrasaten, eta Iturriotzen geneukan egoitza txiki geratu zitzaigun. Arrasate gero eta herri handiagoa da, biztanle asko ditu, eta enpresan garrantzi handia dauka notariotzak. Lehengo notariotzak ez zituen arrasatearren beharrak behar den moduan asetzen, eta horregatik etorri gara Zerrajerara.

Urte asko egin ditu Arrasateko notariotzak Iturriotzen.

Bai. Gerraren ostean hasi zen orduko notarioa Iturriotzen lanean, 1940an, gutxi gorabehera. Iturriotzeko notariotza Arrasateren hazkundearen testigu izan da. Gainera, jakina da On Jose Maria Arizmendiarrarekin batera orduko notarioak, Jose Maria Marko Garmendiak, lan handia egin zuela. Lagun handiak ziren eta lan handia egin zuten; horregatik guztiagatik egoitza zaharrak garrantzi handia dauka.

Notariotza berria jartzeko orduan, zer izan duzue kontuan?

Egoitza zaharra herriaren erdian zegoen, eta argi geneukan berriak ere erdialdean egon behar zuela. Horrez gain, lokal berriak lehengoak ez zituen erosotasunak izan behar zituen. Oraingok sarrera oso erraza dauka: eskailera barik, gutxitu fisikoendako eta jende nagusiarendako traba barik... Badirudi notariotza etxabe baten jartzea gaizki ikusita dagoela, gehienak goiko solairuetan egoten dira-eta. Guk, berriz,



argi ikusi dugu notariotza etxabeen jartzeak erraztasunak baino ez dituela; askoz erosoagoa da.

Aukeratutako lekuarekin gustura zaudete, hortaz.

Bai, oso gustura. Arrasateren erdialdean dago eta eraikin berria eta moderno da. Horrez gainera, aparkalekuak ondo-ondoan daude eta lehengo baina lokal handiagoa da. Horrekin batera, punta-puntako teknologiarekin hornitu dugu notariotza, Arrasateko herritarrei, elkarteei eta enpresei ahalik eta zerbitzu onena emateko.

Lokal handiagoa izatea, orduan, ez zen zuen ardura bakarra.

Ez. Iturriotzen ezin genuen teknologia berrietan inbertitu, leku aldetik mugatuta geunden-eta. Orain, berriz, ordenagailu gehiago, Internet, bideokonferentziak emateko aukera... Komunikabideak hobetu behar genituela ikusi genuen, eta egoitza berriak hori guztiori egiteko aukera eman digu. Hori bai, jendeak jakin dezala ez ditugula telefono zenbakiak aldatu, lehengoak ditugu: 943 79 13 58 eta 943 79 63 35.

Ikusten da inbertsio handia egin duzuela.

Egia esan, bai. Azken baten, gure ogibidea da, baina zerbitzu bat ere eskaintzen dugu, eta zerbitzu hori ahalik eta ondoen eskaintzea da gure asmoa. Herritarrek eta enpresek hori kontuan hartzea gurako genuke.


Norekin egiten duzue lan handien, enprekin ala herritarrekin?

Bada, ezin dut zehatz-mehatz esan, baina gutxi gorabehera erdi eta erdi dela esango nuke. Izan ere, argi dago enpresan kooperatibekin lan handia egiten dugula, eta herritarren artean ere, asko eta asko kooperatibean dabilta lanean. Horrek esan gura du gure lanaren %80k kooperatibarekin harreman zuzena daukala.

“Lokal berriak sarbide erraza dauka, leku onean dago eta handiagoa da”

“Enpresei eta herritarrei zerbitzu hobea emateko asmoz egin dugu”

“Lekuz aldatu bagara ere, lehengo telefono zenbaki berak ditugu”



ARRASATEKO NOTARIOTZA

Zerrajera 2 behea

Tel.: 943 79 13 58 / 943 79 63 35

Faxa: 943 79 01 73

notmon21@euskalnet.net

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal Koop. E.**
Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta
Durana 16 behea
(Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

Leihoak



ARGI PLASTIK
PVC, aluminio termi-
ko eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



Loramendi 7, 2-behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza - Bainuak
Gasa - Berogailuak



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35

Giltzak



• Sarrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkien konponketa • Artazi, laban, eta aba-
rren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gau-
zak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza etxea
Tel./Fax: 943 79 76 03



10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Eraikuntzak

**Arrasate
eraikuntzak SL**

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26



ZUTARRI S.L.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxa: 943 77 10 09